

**PATINETE ELEKTRIKOAK
ETA BIZIKLETAK**



LAGUN ARO

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuaren eta bizikletaren jabearen asegurua

Baldintza orokorrak

AURKIBIDEA

LEGEZKO INFORMAZIOA	05
ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK	07
ONDASUN ASEURAGARRIAK	09
ESKLUSIO OROKORRAK	10
BERMEEN KOADROA	12
ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEA	14
KALTEEN ERREKLAMAZIOA (DEFENTSA JURIDIKOKO ASEURUA)	19
ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA	23
Heriotza	24
Ezintasun iraunkorra	25
Osasun-laguntza	27
Eguneroko bizitzarako laguntza	29
BIDAIAKO LAGUNTZA	37
LAPURRETA	47
ISTRIPUZ GERTATUTAKO KALTEAK	50
NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUTAKOAN	53
Betebeharrak	53
Ezbeharra deklaratzera	54
Kalteen balorazioa	54
Erregela proportzionala	55
Peritazioa eta arbitrajea	55
Kalte-ordaina ematea	56
Subrogazioa	58
Frankiziak	59
POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA	60
Aseguruaren oinarriak	60
Aseguruaren hasiera eta iraupena	60
Primaren ordainketa	61
Banku-helbideratzea	62
Arriskuaren aldaketa	62
Aseguruaren konkurrentzia	63
Jakinarazpenak	64
EZOHIKO GERTAKARIEN ONDORIOZKO GALERENGATIK ASEURATUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOAREN KALTE-ORDAINEN KLAUSULA	65
I. LEGE-ARAUEN LABURPENA	65
1. Estaltzen diren ezohiko gertakariak	65
2. Kanpoan utzitako arriskuak	67
3. Estalduraren hedadura	68
II. KALTEEN BERRI EMATEA ASEURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOARI	68
TELEFONO INTERESGARRIAK	69
OHARRAK	70

LEGE-INFORMAZIOA

Hauek dira kontratu hau arautzen duten legeak eta xedapenak: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, haren Erregelamendua onartzen duen Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiratze eta kaudimenaren azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, eta Xedapen hauek garatzeko gainerako araudiak, baita Baldintza Orokor eta Partikularretan hitzartutakoak eta, hala dagokionean, kontratu-aseguruaren baldintza berezietakoak ere bai.

Aseguratuen eskubideak mugatzen dituzten klausulak ez dira baliozkoak izango polizako Baldintza Partikularretan zehazki eta idatziz onartuta ez badaude. Onarpen hori ez da beharrezkoa izango aginduzko legezko manuen transkripzio edo erreferentzia hutsak dituzten klausulak direnean.

Aseguratzailerak SEGUROS LAGUN ARO SA da (IFK: A-20079224; egoitza soziala: Basurtuko Kaputxinoak, 6-2. 48013 Bilbo, Bizkaia, Espainia). Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua (Sozietateen BI-186 liburukia, 36 folioa, BI 2483 orria, 1. inskripzioa), eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorren mendeko den aseguru-entitateen Erregistroan (C-572 gako).

Ekonomia eta Lehiakortasunerako Ministerioko Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorri dagokio haren jarduera kontrolatzea eta gainbegiratzea.

PRIBATUTASUN-POLITIKA

Aseguru Hartzaileak baldintza hauekin batera doan dokumentuan aurkituko du Seguros Lagun Aro SAREN pribatutasun-politikari buruzko informazioa.

NON ERREKLAMATU

Auzirik sortuz gero, Aseguru Hartzaileak lehendabizi Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura jo dezake, barneko esparruan, idazkia hona bidaliz:

Seguros Lagun Aro
Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua
Basurtuko Kaputxinoak 6-2.
48013 BILBO
www.seguroslagunaro.com
atencioncliente@seguroslagunaro.com

Bigarrenik, eta adostasun-ezak badirau, kanpoko esparruan, idazkia hona bidaliz:

Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones
Servicio de Reclamaciones
Paseo de la Castellana, 44
28046 Madrid
www.seguros lagunaro.com

Erreklamazioak Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorren Erreklamazio Zerbitzuan onar eta izapide daitezzen, ezinbestekoa izango da aurretiaz egin izana frogatzea, idatziz, Seguros Lagun Aroren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuari. Hark aurkeztu zaizkion erreklamazioak hartu izanaren berri eman beharko du idazki bidez, eta arrazoiturik ebatzi edo ukatu beharko ditu erreklamazioak; hori ere idazki bidez. Halaber, erreklamatzailleak erreklamazioa aurkeztu zuen dataz geroztik erreklamazioa ebatzi gabe bi hilabete pasatu direla frogatu behar izango du, edo erreklamazioa onartzeari uko egin zaiola edo bere eskaera ezetsia izan dela.

Edonola ere, beti izango du justizia arrunteko epaitegi eta auzitegietara jotzeko aukera.

ASEGURUAREN OINARRIZKO DEFINIZIOAK

Aseguru Etxea. Seguros LAGUN ARO SA, polizaren entitate jaulkitzailea, Aseguratzaille gisa, eta prima kobratuta, kontratu honen objektu diren arriskuen estaldura bere gain hartzen duena, polizako baldintzen arabera.

Aseguru Hartzailea. Aseguru Etxearekin kontratu hau sinatzen duen pertsona, eta hortik sortzen diren betebeharrak, eta bereziki itundutako prima ordaintzearena, bere gain hartu beharko dituen, espresuki aseguratuari eta/edo onuradunari dagozkionak izan ezik.

Aseguratua. Arriskupean dagoen interesaren titularra, kasua denean, kontratutik sortutako eskubideak hartzen dituen pertsona. Aseguratuak bere gain hartu ahal izango ditu Aseguru Hartzailearen betebeharrak eta eginbeharrak.

Gidaria. Baldintza Partikularretan polizaren aseguru gisa deklaraturako edozein pertsona fisiko, legezko gaikuntzarekin ibilgailua ezbeharraren unean gidatzen duena eta priman eragina izan dezaketen arrisku-faktoreak dituena.

Onuraduna. Poliza honen ondoriozko kalte-ordainak jasotzeko eskubidea duen pertsona, Aseguru Hartzaileak edo, hala badagokio, Aseguratuak hala emanda.

Poliza edo aseguru-kontratua. Aseguru Etxearen eta Aseguru Hartzailearen artean itundutako baldintzak jasotzen dituen dokumentua, honako hauek osatutakoa: Baldintza Orokorrak (aseguruaren oinarrizko alderdiak eta alderdi orokorrak jasotzen dituztenak), Baldintza Partikularrak (Aseguru Hartzaile bakoitzarentzat Baldintza Orokorrak osatu edo aldatzen dituzten alderdi espezifiko eta indibidualizatuak jasotzen dituztenak) eta, hala dagokionean, baita Baldintza Bereziak eta Gehigarri edo Eranskinak ere (Baldintza Orokorraren ondorengo eta jarraiko aldaketak xedatzen dituztenak).

Prima. Aseguruaren kontraprestazio gisa Aseguru Etxeari ordaintzen zaion zenbatekoa. Primaren zenbatekoa ordainagirian adierazten da, Aseguru Hartzaileari jasanaraz dakizkiokeen zergak, tributuak eta errekarquak barne.

Zenbateko aseguratua. Ezbehar bakoitzeko eman beharreko kalte-ordainaren gehieneko muga adierazten duen eta polizako Baldintza Partikularretan ezartzen den diru-kopurua.

Ezbeharra. Polizak estaltzen dituen ondorio ekonomiko kaltegarriak sortzen dituen istripuzko gertaera. Ezbehar bakartzat hartuko dira arrazoi bera edo berdina dela-eta sortutako kalte batengatik edo gehiagogatik egindako erreklamazioak. Kasu honetan, kalteetako lehenengoa azaldu zen unea hartuko da ezbeharraren gertaera-data gisa.

Hirugarren bat. Aseguratuaz edo Aseguru Hartzaileaz bestelako edozein pertsona fisiko edo juridiko; hala ere, kontratu honen ondoreetarako, ez dira hirugarrentzat jotzen Hartzailearekin bizi diren pertsonak, eta ezta berorren edo Aseguratuaren familiartekoak ere, hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunekoak badira. Ez dira hirugarrentzat joko, ezta, etxeko langileak eta, egitez edo zuzenbidez, lehen aipatutakoen ardurapean dauden pertsonak ere, mendekotasun horren eremuan jarduten duten bitartean.

Istripuz gertatutako kalteak. Aseguratuaren borondatez bestelako istripuz gertatutako eta ustekabeko kanpo-gertakarien ondorioz zuzenean gertatutako kalteak, aseguratutako gailuaren funtzionamendu egokia eragozten dutenak.

Balio-galera. Eskuratu zenetik ondasun batek (materialak nahiz immaterialak) jasaten duen balio-galera. Erabileraren, denboraren joanaren, zahartzaroaren eta zaharkituta geratzearen ondoriozko higaduraren ondorio nagusia da (zaharkitua edo desegokia bihurtu delako nahiz modak edo gaur egungo premiak direla-eta).

Zenbateko aseguratua. Ezbehar eta estaldura bakoitzeko eman beharreko kalte-ordainaren gehieneko muga adierazten duen eta Baldintza Partikularretan ezartzen den kopurua.

Frankizia. Kalte-ordainetik kenduko den espresuki hitzartutako zenbatekoa edo ehunekoa. Zenbateko hori Aseguratuaren kargura izango da.

Lapurreta. Hirugarrenek legez kontra zerbait kentzea, gauzen aurka indarkeria dakarten ekintzen bidez.

Espoliazioa edo atrakoa. Hirugarrenek legez kontra zerbait kentzea pertsonen aurka larderia edo indarkeria erabiltzea dakarten ekintzen bidez.

Ebasketa. Hirugarrenek legez kontra zerbait kentzea, gauzen eta pertsonen aurkako indarrezko ekintzarik gabe.

Bizikleta elektrikoa. Pedalei eragiteko laguntza duen bizikleta, 25 km/h-ko abiadura hartzean edo txirrindulariak pedalei eragiteari uztean eteten den pedal-prozesuari laguntzeko propulstioa duena.

ASEGURA DAITEZKEEN ONDASUNAK

Ibilgailu hauek izango dira aseguru honen objektu:

- Plaza bakarreko **patinete elektrikoak**, ibilgailuari 6 eta 25 km/h arteko gehieneko abiadura eman diezaioketen motor elektrikoek soilik propulsatutakoak.
- Pedalei eragiteko laguntza duten **bizikletak/bizikleta elektrikoak** (25 km/h-ra iristean edo txirrindulariak pedalak eragiteari uztean eteten den pedal-prozesuari laguntzeko propulstioa duen ibilgailua).

Ez dira halakotzat hartzen:



- Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak.
- 100 KZV edo 240 AC baino gehiagoko lan-tentsioa duten ibilgailuak.
- N2 168/2013 (EB) Erregelamenduaren esparruan sartzen diren ibilgailuak.
- Ibilgailu motordunen zirkulazioko erantzukizun zibilaria eta aseguruari buruzko Legearen aplikazio-eremuaren eta betekizunen barruan gera daitezkeen ibilgailu motordunak.

ESKLUSIO OROKORRAK



Oro har eta berme guztien kasuan, Aseguru Etxeak ez ditu estaltzen ondorengo arrazoiak tarteko sortu edo eragindako kalteak eta galerak:

→ Aseguratuaren fede gaiztoa, doloa edo erru larria.

→ Gerra, inbasioa, etsaigoak (gerra-deklarazioarekin edo gabe), errebolta, altxamendua, kolpe militarra, botere-usurpazioa edo terrorismoa.

→ Kutsu politikoa edo soziala duten egintzak, matxinadak eta jende arteko iskanbilak eta kalapitak, bake-garaiko neurri edo indar militarrek.

→ Poliza kontratatu aurreko kalteak.

→ Aseguratutako ibilgailua kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera normalean egoteko beharrezkoak diren konponketak ez egitea.

→ Droga toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean edo mozkortuta dagoela gidariak aseguratutako ibilgailuarekin zirkulatzetik eratorritako prestazioak. Gidaria mozkortuta zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiago bada, edo epai judizialean frogatutzat ematen bada inguruabar horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeharra gertatzeko.

→ Nahitaezko aseguru batek estali beharrekoak diren arriskuengatik sortutako kalteak. Legezkoa gainditzen duena ere kanpoan geldituko da.

→ Uholdeak, euri-jasak, sagailoak, erupzio bolkanikoak, urakanak, mugimendu sismikoak eta, oro har, edozein kausa ohiz kanpoko edo katastrofiko. Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak estaltzen dituen gertaera edo fenomenoak, edo Erakunde horrek Aseguratuen eskubidearen eraginkortasuna onartzen ez duenean, gertatzen den datan indarrean dauden erregelamenduan eta xedapen osagarrietan xedatutako arauetako baten bat ez duelako betetzen, ezta sortutako kalteak Estatuko gobernuak "Katastrofe edo Hondamen Nazional" gisa sailkatzen ditueanean ere.



Oro har eta berme guztien kasuan, Aseguru Etxeak ez ditu estaltzen ondorengo arrazoiak tarteko sortu edo eragindako kalteak eta galerak:

→ Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak bere araudiaren arabera babestu beharreko ezbeharrak.

→ Kirol-lehiaketetan (ofizialak nahiz pribatuak) aritzeagatik gertatzen diren ezbeharrak, baita halakoen entrenamenduetan edo probetan gertatutakoak ere.

→ Aseguratutako ibilgailua helburu komertzialetarako, mezularitzarako, banaketarako edo bidaiarien garraiorako erabiltzetik eratorritako ezbeharrak.

→ Aseguratutako ibilgailuetan garraiatzen diren gauzek jasandako kalteak.

→ Aseguratuak kargaren pisuari edo tamainari buruzko arauzko xedapenak bete ez dituzenean edota garraiatutako pertsonen kopuruari eta baldintzei buruzkoak bete ez dituzenean gertatutako kalteak, betiere arau-hauste hori istripuaren kausa erabakitzailea izan denean.

→ Aseguratuaz bestelako pertsonen bizikletak edo patinete elektrikoak erabiltzeagatik sortutako ezbeharrak.

Polizaren bermeak eta baldintzak ezeztatuta geratuko dira bizilekua Espainiatik kanpora aldatzen bada.

BERMEEN KOADROA

(Baldintza Partikularretan kontratatutakoaren arabera).

Aseguratutako zenbatekoa	
Erantzukizun Zibila	
	Kapital aseguratua
Kalteen erreklamazioa (defentsa Juridikoa)	
	Kapital aseguratua
Gidariari istripuak	
Heriotza	Kapital aseguratua
Ezintasun iraunkorra	Kapital aseguratua
Osasun-laguntza	Kapital aseguratua
Eguneroko bizitzarako laguntza	Barne
Bidaiako laguntza	
Ibilgailuarentzako eta gidariarentzako laguntza	Barne
Ibilgailua garraiatzea	Barne (gehieneko distantzia 100 km edo gehieneko kostua 200 €)
Pertsonak etxera itzultzea lapurreta, matxura edo istripuagatik	Barne
Istripua izandako gidari zauritua edo hila aberriratzea	Barne
Hoteleko egonaldia luzatzeagatik sortutako gastuak	Kapital aseguratua (10 egun gehienez)

Aseguratutako zenbatekoa	
Bidaiako laguntza	
Atzerriko mediku-gastuen ordainketa	Kapital aseguratua
Gorpua aberriratzea aseguratutako ibilgailuarekin izandako zirkulazio-istripuagatik	Barne
Ibilgailuari egindako istripuzko kalteak	
Durante circulación	Kapital aseguratua (urtean 2 ezbehar gehienez)
Lapurreta	
Ibilgailuaren lapurreta	Kapital aseguratua

Adibidea:

Bermeei lotutako adibideak informatiboak dira soil-soilik, bermeak modu argiagoan interpretatzen laguntzeko.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEAK

MPIaren eta/edo bizikletaren jabearen erantzukizun zibila

Baldintza Partikularretan espresuki sartuta baldin badaude, kontratatutako bermeak estalitzat hartuko dira, haietan adierazi den zenbateko aseguruaren mugekin.

Denbora-mugak

Estaldura Aseguruaren Erantzukizun Zibilera mugatzen da, eta indarraldian lehen aldiz gertatutako kalteetarako efektua du, baldin eta horiek sortu dituzten gertaerak kontratuaren efektu-dataren ondoren gertatu badira eta erreklamazioa Aseguru Etxeari polizaren indarraldian edo kontratua iraungi ondorengo 24 hilabeteetan era fede-emailean jakinarazi bazaio.

Lurralde-mugak

Espainiako lurraldean eta herrialde mugakideetan (Andorra, Frantzia eta Portugal) gertatutako eta eragindako kalteak eta galerak estaliko dira.

Kasu hau lurralde nazionalerako ezarritako baldintza beretan ematen da, eta aplikazio-eremuaren hedapen moduan bakarrik izango ditu ondorioak.

KONTRATATUTAKO BERME ETA KAPITAL ASEGURATUAK ETA, BERAZ, KALTE-ORDAINEN MUGAK, BALDINTZA PARTIKULARRETAN ADIERAZITAKOAK IZANGO DIRA

Adibidea:

Bermeei lotutako adibideak informatiboak dira soil-soilik, bermeak modu argiagoan interpretatzen laguntzeko.

Estaltzen da



→ Baldintza Partikularretan kontratatutako bermearen mugarekin, Aseguratuak, haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak eta 16 urtetik gorakoak izanik Aseguratuarekin bizi diren seme-alaba ezkongabeek polizan deklaraturako patinete elektriko edo bizikleta aseguruarekin zirkulazioan eragindako kalte material eta pertsonalak.

Adibidea

→ Patinetearekin zirkulatzean, oinezko bat harrapatu eta beso bat hautsi diot.

→ Bizikletarekin zirkulatzean, ez dut ikusi pasatzen uzteko seinalea, eta kalteak eragin dizkiot lehentasunarekin zirkulatu ari zen ibilgailu bati.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEA

MPIaren eta/edo bizikletaren jabearen erantzukizun zibila

Ez dira estaltzen



→ Apustu, desafio, lasterketa edo edozein eratako lehiaketetan edo halakoak prestatzen parte hartzearen ondorioz sortutako kalteak.

→ Zirkulatzeko baliatzen ari garen ibilgailuen erabilerari buruzko arauak, legeak, ordenantzak eta erregelamenduak ez betetzetik etorritako kalteak (estatukoak, autonomikoak eta udal-ordenantzak).

→ Nahitaezko aseguru batek estali beharrekoak diren arriskuengatik sortutako kalteak. Legez ezarritakoa gainditzen duena ere kanpoan geldituko da.

→ Bizikletak, pedalei eragiteko lagundutako bizikleta elektrikoak (pedalei eragiteko propulzio osagarria, 25 km/h-ko abiadurara iristen direnean edo txirrindulariak pedalei eragiteari uzten dionean eteten dena) eta patinete elektrikoak ez diren bestelako ibilgailuek eragindako kalteak

→ Jarduera profesional bat egiten den bitartean zirkulaziotik eratorritako kalte pertsonalak eta materialak.

→ Aseguruaren objektua den ibilgailua fabrikatu deneko erabilera ez den beste bat ematea edo behar ez bezala erabiltzea.

Ez dira estaltzen



→ Droga toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean edo mozkortuta dagoela gidariak aseguratutako ibilgailuarekin zirkulatetik eratorritako prestazioak. Gidaria mozkortuta zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiagoa bada, edo epai judizialean frogatutzat ematen bada inguruabar horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeharrak gertatzeko.

→ Aseguru-hartzaileak edo gidariak garraiatutako pertsonen kopuruari eta baldintzei buruzko edota kargaren pisuari edo tamainari buruzko arau-xedapenak ez betetzearen ondorioz eragindako kalte pertsonalak eta materialak, betiere arau-hauste hori istripuaren kausa erabakitzailea izan denean.

→ Aseguratutako ibilgailuko gidariak bestelako bidaiariek izandako kalteak.

→ Ibilgailuan garraiatutako ondasunetan izandako kalteak, aseguruaren jabetzakoak izan nahiz hirugarrenen jabetzakoak izan.

Adibidea

→ Patinete elektrikoa etxez etxe janaria banatzeko erabiltzean, pertsona bat harrapatu dut oinezkoentzako pasabide batean.

→ Bizikletarekin zirkulatzean, aurreko gurpilak irrist egin du. Erortzean, lan egiten dudana enpresaren jabetzako den ordenagailu eramangarria (motxilan neraman) eta telefono mugikorra hautsi zaizkit.

→ Seme-alaba nire patinete elektrikoan eramatean, eroriko bat izan dugu. Seme-alabak kalte pertsonalak jasan ditu, eta aparkatutako ibilgailu batek ere bai. Bi ondorio horiek ez dute estaldurarik, legeria hautsi delako: debekatuta dago mugikortasun pertsonaleko ibilgailu batean bi pertsonak bidaiatzea.

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO BERMEA

Fidantzak eta kostu judizialak

Estaltzen da



→ Erantzukizun zibileko bermeak estalitako ezbehar bat gertatuz gero, Aseguru Etxeak prestazio hauek ere hartuko ditu bere gain:

- Aseguratuari eskatutako fidantza judizialak eratzea, prozedurako ondorio zibilak bermatzeko.
- Kostu judizialak, polizan aurreikusitakoaren arabera Aseguru Etxeak eman beharreko kalte-ordainaren eta aseguruak ezbeharrean duen erantzukizunaren zenbateko osoaren arteko proportzio berean.

→ **Espresuki kontrakorik hitzartu ezean, Aseguru Etxeak bere gain hartuko du kaltetunaren erreklamazioari erantzuteko zuzendaritza juridikoa, eta bere kontura izango dira sortutako defentsa-gastuak. Aseguruak behar den laguntza guztia eman beharko du Aseguru Etxeak bere gain hartutako zuzendaritza juridikoan.**

→ Aseguratuaren aurkako prozesu judizialetan kondena-epaia ematen badute, Aseguru Etxeak Auzitegi Nagusi eskudunaren aurrean helegitea aurkeztea komeni den edo ez erabakiko du; errekurtsioa bidegabetzat jotzen bada, interesdunari jakinaraziko dio, eta honek bere kontura aurkezteko askatasuna izango du. Azken kasu horretan, jarritako errekurtsioari emandako epaia Aseguru Etxearen interesen aldekoa baldin bada, Aseguru Etxeak bere gain hartu beharko ditu errekurtsioak sorrazitako gastuak.

→ Aseguratuaren aurkako prozesu judizialetan kondena-epaia ematen badute, Aseguru Etxeak Auzitegi Nagusi eskudunaren aurrean helegitea aurkeztea komeni den edo ez erabakiko du; errekurtsioa bidegabetzat jotzen bada, interesdunari jakinaraziko dio, eta honek bere kontura aurkezteko askatasuna izango du. Azken kasu horretan, jarritako errekurtsioari emandako epaia Aseguru Etxearen interesen aldekoa baldin bada, Aseguru Etxeak bere gain hartu beharko ditu errekurtsioak sorrazitako gastuak.

Azken kasu horretan, Aseguru Etxeak zuzendaritza juridikoaren gastuak ordaindu beharko ditu, 600 €-ko mugaraino.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA (DEFENTSA JURIDIKOKO ASEGURUA)

Baldintza Partikularretan espresuki sartuta baldin badaude, kontratatutako bermeak estalitzat hartuko dira, horietan adierazi den zenbateko aseguruaren mugekin.

KONTRATATUTAKO BERME ETA KAPITAL ASEGURATUAK ETA, BERAZ, KALTE-ORDAINEN MUGAK, BALDINTZA PARTIKULARRETAN ADIERAZITAKOAK IZANGO DIRA.

Estaltzen da



→ Baldintza Partikularretan deklaraturako ibilgailuari eragindako kalte materialen erreklamazioa adiskidetasunez edo judizialki egitea, kalte pertsonalena eta ondoriozko kalteena, kalte horiek poliza honetako Erantzukizun Zibileko bermeak babestutako Aseguratuari eragin zaizkionean, hirugarren baten ez-kontratuzko egintzaz edo omisioz gertatu denean.

→ Alde horretatik, Aseguru Etxeak Aseguruaren esku jarriko ditu hark ahalordetutako profesionalen zerbitzuak, haren interesak behar bezala defendatzeko.

→ Halaber, kapital aseguruaren mugaren barruan estalita geratzen dira:

- Estalitako prozedurak izapidetzearen ondoriozko tasa, eskubide eta epaiketa-kostuak as tasas, derechos y costas judiciales derivadas de la tramitación de los procedimientos cubiertos.
- Abokatuaren eta prokuradorearen ordainsariak eta gastuak, nahitaez parte hartu behar duenean, dagokion Elkargo Profesioletarako zehaztutako ordainsari orientagarrien taulako mugara arte.
- Notariotzako gastuak eta auzietarako ahalordeak egilesteakoak eta Aseguruaren interesak defendatzeko behar diren akta, errekerimendu eta gainerako ekintzak.

Estaltzen da



→ Kalteak eragindako hirugarren hori Administrazio Publiko bat izango balitz, edo erreklamazioa bide administratibotik egin beharko balitz, **aurretiko erreklamazio administratiboa soil-soilik estaliko da, eta ez dira inola ere bermatuko administrazioarekiko erreklamazio judzialaren gastuak.**

→ Aseguratuaren interesen ZIGOR-ARLOKO DEFENTSA JURIDIKOA prozesu judizialetan, erreklamazioaren objektua erruz edo zabarkeriaz egindako egintza eta omisioek sortua denean eta Baldintza Orokor hauetako familiaren erantzukizun zibileko estaldurak bermatuta daudenean.

NOLANAHI ERE, 150 EUROTIK BEHERAKO AUZIAK EZ DIRA ESTALIKO

Estalduraren lurralde-eremua Espainiako lurraldean gertatu diren eta Espainiako epaitegi eta auzitegien eskumena diren ezbeharrei dagokie, eta Espainiako Zuzenbideari buruzkoak badira.

Adibidea

→ Bizikletarekin zirkulatzean, lesioak izan ditut, bide publikoan estolderia-estalki bat altxatuta zegoelako ererikoa izan ondoren. Ererikoaren ondoriozko kalteen bide administratibo bidezko erreklamazioa estalita egongo litzateke.

→ Ibilgailu batek stop bat saltatu du bidegurutze batean. Kolpea eman dit eta kalteak eragin ditu nire patinete elektrikoan. Patineteak istripua eragin duen ibilgailuari eragindako kalteen erreklamazioa estalita egongo litzateke.

KALTEEN ERREKLAMAZIOA (DEFENTSA JURIDIKOKO ASEGURUA)

Ez dira estaltzen



- Administrazioarekiko auzibideko erreklamazio-gastuak.
- Kalte material edo pertsonal batetik ez datozen kalteen erreklamazioa.
- Kalte-ordainen, zehapenen eta isunen ordainketa, ezta haien kontrako errekurtsoak ere, edo agintari eskudunek halakoak ezartzearen ondoriozko edozein gastu.
- Poliza honetako Aseguratuek elkarri aurkeztutako erreklamazioak edo haietako edozeinek Asegurazailearen kontra aurkeztutakoak.
- Zigor-arloko defentsa, familiaren erantzukizun zibileko bermearen arabera Aseguratuaren izaera dutenak gertaera mingarriren bat egiteagatik inputatzen dituztenean.
- Aseguratuaren jarduera profesionala kausa diren erreklamazioak.
- Poliza indarrean sartu aurretik sortu edo lehen aldiz adierazi diren gertaerak.
- Aseguratuaren doloz edo kulpa larriz sortutako kalteak, bai eta nahita egindako delitu bat egiten zen bitartean gertatutako istripuak.
- Aseguratuak doloz egindako egintzengatik jasandako kalteen erreklamazioa.
- Edozein motatako isunak, zehapenak edo zigorrak, eta horiek ez ordaintzearen ondorioak.

Adibidea

→ Nire patinete elektrikoarekin zirkulatzean, zirkulazio-zehapen bat jarri didate, eta iruditzen zait ez dela egokia. Ez dago estalita zehapenaren defentsa deskargu-orriak eginez, ez eta jarritako zehapenaren zenbatekoa ere.

ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Baldintza Partikularretan espresuki sartuta baldin badaude, kontratatutako bermeak estalitzat hartuko dira, haietan adierazi den zenbateko aseguruaren mugekin.

Estaltzen da



→ Bizikletaren/bizikleta elektrikoaren edo patinete elektrikoaren Aseguratuak jasandako kalte pertsonalen kalte-ordaina, istripua aipatutako ibilgailuaren zirkulazioaren ondorioz gertatu bada.

Istriputzat hartzen da gorputz-lesioa, kanpoko kausa bortitz, bat-bateko eta aseguruaren asmoez bestelako batek eragiten duenean, eta behin-behineko ezintasuna nahiz ezintasun iraunkorra edo heriotza dakarrena.

Aseguru honek bermatzen dituen kalte-ordainak aseguruari dagokion beste edozeinekin bateragarriak dira, berme honetan arautzen diren osasun-laguntzako prestazioak izan ezik.

Aseguru honetatik sortutako kalte-ordainak finkatzeko, ez dira kontuan hartuko ez aseguruaren lanbidea ez eta gainerako inguruabarrak ere, baldintza hauetan azaltzen ez badira.

Aseguratuak agindutako jarraibide medikoak jarraitu beharko ditu, eta horien berri eman beharko dio Aseguru Etxeari.

Aseguratuak nahita eragiten badu istripua, Aseguru Etxea aske geratuko da bere beharrak betetzetik.

Lesioak larrituko balira lesionatuaren erruz -preskripzio medikoak jarraitu ez dituelako-, Aseguru Etxeak ez luke inolako erantzukizunik izango.

ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Heriotza-bermea

Estaltzen da



→ Aseguratutako ibilgailuaren gidariaren heriotza dela-eta, onuradunari kalte-ordaina ematea. Kalte-ordain hori Baldintza Partikularretan ezarritako kapitalak osatuko du.

→ Kalte-ordaina polizako Baldintza Partikularretako kapitalaren % 100ean handituko da, baldin eta aseguratutako ibilgailuak jasaten duen zirkulazio-istripuan gidaria bere ezkontidearekin eta/edo izatezko bikotekidearekin batera hiltzen bada eta gidariak seme-alaba adingabe, ezindu edo bere kontura bizi den bat badu.

Ez dira estaltzen



→ Pertsona ezgaituen heriotzagatikoko kalte-ordainak ematea.

→ Droga toxikoen edo sorgogarrien eraginpean edo mozkortuta dagoela gidariak aseguratutako ibilgailuarekin zirkulatzeetik eratorritako prestazioak. Gidaria mozkortuta zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiagoa bada, edo epai judizialean frogatutzat ematen bada inguruabar horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeharra gertatzeko.

ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Ezintasun iraunkorraren bermea

Estaltzen da



→ Aseguratutako ibilgailuaren gidari aseguruaren Ezintasun Iraunkorraren kalte-ordaina. Hala dela ulertzen da izendatutako peritu medikoek egindako irizpenak ez duenean sendatzea aurreikusten. Kalte-ordaina kalkulatzeko, ezintasunaren egiaztigiri medikoaren edukia hartuko da oinarri, Ibilgailu motordunen zirkulazioko Erantzukizun Zibil eta Aseguruari buruzko Legearen testu bategina onartzen dituen urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa, eta horren eranskin gisa doan 2A.1 taularekin (“Baremo medikoa”) bat etorritz, Lege beraren Eranskin gisa sartua Zirkulazio-istripuetan pertsoneri eragindako kalte-galerak baloratzeko sistemaren erreformaren irailaren 22ko 35/2015 Legearen bidez, salbu eta Lege horren bigarren apartatuari dagokionez (“kapitulu berezia: kalte estetikoa”).

Aipatutako kalkulu horren ondoriozko puntu guztien zenbatekoa baldintza partikularretan jasotako kapitalaren zifrari aplikatuko zaio, ehuneko gisa, eta horren emaitza guztira ordainduko den kalte-ordainaren zenbatekoa izango da.

Kalte-ordaina polizako Baldintza Partikularretako kapitalaren % 100ean handituko da, baldin eta aseguratutako ibilgailuak jasaten duen zirkulazio-istripua dela-eta aseguruari III. mailako mendekotasuna aitortzen bazaio erakunde eskudunak emandako ebazpenaren bidez abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak) ezarritakoarekin bat.

Adibidea

→ Bizikletarekin erori naiz, ondorioetako 12 punturen lesioak eraginez, eta kontratatutako kapitalaren muga 10.000 eurokoa da. Egoera horrek 1.200 euroko prestazioa sortuko du (10.000 euroko % 12).

ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Ezintasun iraunkorraren bermea

Ez dira estaltzen



→ Kalte estetikoak, hala nola orbainak, kanpo-deformazioak edo legezko baremo medikoan kalte estetikoek kapitulu berezian sar daitezkeen beste edozein motatako sekuelak.

→ Droga toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean edo mozkortuta dagoela gidariak aseguratutako ibilgailuarekin zirkulatzeak eratorritako prestazioak. Gidaria mozkortuta zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiagoa bada, edo epai judizialean frogatutzat ematen bada inguruabar horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeharrak gertatzeko.

→ Aseguratutako ibilgailuko gidariak bestelako bidaiariek izandako kalte pertsonalak.

Adibidea

→ Bizikletarekin zirkulatzean eta nire seme-alaba adingabea atzeko haur-aulkian eramatean, erori egin gara eta kalte pertsonalak izan ditugu biok.

ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Osasun-laguntzako bermea

Estaltzen da



- Lesionatutako aseguratua sendatzeko beharrezkoak diren gastuen ordainketa, eta, nolana ere, itundutako mugen barruan nahitaezkoak diren larrialdiko laguntzak.
- Aseguru Etxeak espresuki onartutako fakultatiboek eman beharko dute laguntza medikoa; bestela, aseguruak bere gain hartuko du berme honi egozgarri zaizkion gastuen erdia. Hala eta guztiz ere, Aseguru Etxeak osorik abonatuak dituzten larrialdiko laguntzatik edo lehen sorospenetatik eratorritako gastuak, laguntza nork eman duen kontuan hartu gabe.
- Osasun-laguntzako gastuen ordainketa bost eguneko epean egingo da gehenez ere, Aseguru Etxeak gastu horiek egiaztatzen dituzten fakturak jasotzen dituen egunetik kontatzen hasita.

Berme honek hirurehun eta hirurogeita bost eguneko iraupena izango du gehenez ere, istripua izandako egunetik kontatzen hasita.

ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Osasun-laguntzako bermea

Ez dira estaltzen



→ Osasun-laguntzako gastuak, nahitaezko aseguru batek estaltzen baditu, Automobilen aseguruan izan ezik, baldin eta zenbatekoa Zirkulazioko Arriskuen Bermearen Funts Nazionalak onartu gabeko zentroetan egindako osasun-prestazioetarako finkatutako muga baino handiagoa bada; kasu horretan, Aseguru Etxeak abonatu dituzten gastuok, muga horretatik hasi eta polizan ezarritako mugaraino.

→ Droga toxikoen edo sorgorgarrien eraginpean edo mozkortuta dagoela gidariak aseguraturako ibilgailuarekin zirkulatzetik eratorritako prestazioak. Gidaria mozkortuta zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiagoa bada, edo epai judizialean frogatutzat ematen bada inguruabar horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeharrak gertatzeko.

→ Suizidioa edo suizidio-ahalegina, eta, oro har, nahita egindako lesioak.

→ Epidemiak edo bat-bateko gaixotasun infekziosoak edo hedapen bizkorrekoak (pandemiak, hondamendi naturalak edo kutsadura).

→ Bihotz-atakeek eragindako istripuak.

→ Istripua gertatu aurretik jasandako gaixotasunak edo min kronikoak.

→ Istripuaren ondorioz audifonoetan, betaurrekoetan, lentilletan eta protesietan gertatutako zuzeneko kalte materialak.

ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Eguneroko bizitzarako laguntza

Eguneroko bizitzarako laguntza bizikletentzat, bizikleta elektrikoentzat eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuentzat.

Ezbeharraren jakinarazpena

Aseguratuak ezbeharra gertatu dela jakinarazi beharko dio Aseguru Etxeari, eta ezbeharra behar bezala kudeatzeko behar duen informazio guztia eman beharko dio. Jakinarazpen hori eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan eman ahal izango da; hauek dira harremanetarako bideak:

Telefonoa: 900 38 08 38

Atzeritik: 00 34 944 05 14 12

Lurralde-eremua

Berme honen prestazioak Espainian aplikatzekoak dira -uharteak, Ceuta eta Melilla barne-, nahiz eta ezbeharra Espainiatik kanpo gertatu.

Bermearen norainokoa

Berme honetan, aseguraturat hartzen da Espainian bizilekua duen pertsona fisikoa, aseguraturako ibilgailuaren gidaria, haren ezkontidea edo izatezko bikotekidea, 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasunen bat dutenak eta lehen graduko aurreko ahaideak, etxe berean bizi eta indarrean dagoen legediari jarraiki mendekotasun-egoeran dauden bitartean. Era berean, bigarren pertsona bat aseguraturua izango da, baldin eta aseguraturako ibilgailuan aulki homologatu batean bidaide gisa bidaiatzen duen adingabea bada eta ibilgailua bizikleta edo bizikleta motorduna bada.

Eguneroko bizitzarako laguntzako bermeez estaldura eskaintzen dute ibilgailu aseguratuarekin izandako istripu baten ondorioz aseguraturua 48 orduetik gora ospitaleratuta egon behar denean, edota 5 egunetik gora etxean mugitu ezinik egon behar denean, edo aseguraturua hiltzen denean, betiere inguruabar horietako edozein aseguraturako ibilgailuarekin izandako zirkulazio-istripu baten ondoriozkoa denean.

Aseguraturako ibilgailua polizako Baldintza Partikularretan izendatutakoa izango da, baldin eta bizikleta, pedal-eragite lagundua duen bizikleta elektrikoa edo mugikortasun pertsonaleko ibilgailua (MPI) bada, 25 km/h-tik gorako gehieneko abiadura gaitzen ez duena eta automobilaren nahitaezko asegurua edukitzeko beharra inola ere ez duena.

Bermeak inoiz ere ez dira aplikatuko zerbitzu publikoen ordean, bereziki larrialdi-laguntzetan.

Estaltzen da



→ Etxez etxeko laguntzailea. Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du etxez etxeko laguntzaile bat bilatu eta bidaltzea, aseguratuari laguntzeko etxeko oinarrizko zereginetan, etxebizitza garbitzen, etxean janaria prestatzen; etxeko arropa garbitzen, lisatzen eta antolatzen; erabiltzailearen kontura jakiak eta premiazko beste gai batzuk erosten, gehienez ere 30 orduz, eta egunean gutxienez 2 orduz jarraian lehenengo egunetik kontaktzen hasita. Ordu horiek hilabeteko epean banatuko dira gehienez ere.

Prestazioaren ordu-kopurua esleitzeko eskatzailearen autonomia-mailaren balorazio objektiboa hartuko da oinarri gisa eta, besteak beste, alderdi hauek baloratuko dira: mugitu ezinik egondako denbora efektiboa edo oinarrizko zereginak egiteko ezgaitasuna, aseguratuaren lesioen larritasuna eta familia-unitateko mendeko kideen kopurua.

Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du aseguratuari egin dizkioten txosten eta proba medikoak eskatzeko eskubidea; Aseguru Etxeko medikuak baloratuko ditu eta erabaki eta baloratuko du bezeroaren ezintasun-maila eta, ondorioz, zenbat ordu egin beharko dituen etxez etxeko laguntzaileak.

Etxez etxeko laguntzailearen bermea ezin da metatu etxean familia-unitate berean pertsona bat baino gehiago daudenean lesionatuta edo mugitu ezinik.

→ Laguntza soziosanitarioa. Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du etxez etxeko laguntzaile bat bilatu eta bidaltzea, etxeko lanak alde batera utzita, aseguratuak zainketa pertsonala behar duenean, gehienez ere 30 orduz, egunean gutxienez 2 orduz jarraian lehenengo egunetik kontaktzen hasita eta gehienez hilabeteko epean zehar banatuta.

Berme honetan sartzen diren prestazioak dira: aseguratuari bere eguneroko higienean laguntzea, bere burua txukuntzen, dutxatzen edo bainatzen, arropa eta oinetakoak janzen eta elikatzen, etxe barruan lekuz aldatzen eta mugitzen, jaten ematen eta osasun-zentroak agindutako botikak hartzen, eta oinarrizko laguntza ematea inkontinentzia duten pertsonen eta higiene- eta txukuntasun-ohiturak sustatzea.

Estaltzen da



Prestazioaren ordu-kopurua esleitzeko eskatzailearen autonomia-mailaren balorazio objektiboa hartuko da oinarri gisa, eta besteak beste alderdi hauek baloratuko dira: mugitu ezinik egondako denbora efektiboa edo oinarrizko zereginak egiteko ezgaitasuna, istripua izan duen aseguratuaeren lesioen larritasuna eta familia-unitateko mendeko kideen kopurua.

Nolanahi ere, Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du aseguratuari egin zaizkion txosten eta proba medikoak eskatzeko eskubidea.

Berme hau eta “Etxez etxeko laguntzailea” bermea ez dira bateragarriak.

→ 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak Etxean Zaintzeko laguntzailea. Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du etxez etxeko laguntzaile bat kudeatu eta bidaltzea, 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasunen bat dutenak eta lehen graduko aurreko ahaideak zaindu eta artatzeko, gehienez ere 30 orduz, hilabeteko gehieneko epean zehar, egunean 2 ordu gutxienez jarraian eginez.

Prestazioaren orduen kopurua ezartzeko, istripua izan duen aseguratuaeren autonomia-mailaren balorazio objektiboa hartuko da oinarri gisa, eta mugitu ezinik egondako denbora efektiboan edo oinarrizko zereginak egiteko ezgaitasunean, aseguratuaeren lesioen larritasunean eta familia-unitateko mendeko kideen kopuruan oinarrituz kalkulatu da ordu-kopuru hori.

Nahitaezkoa da lehen graduko aurreko ahaideak etxe berean bizitzea eta mendekotasuna izatea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Berme hau bateraezina da beste berme hauekin: “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak zaintzeko familiarterko baten joan-etorria”, “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak eramatea”, “Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko familiarterko baten joan-etorria” eta “Lehen graduko aurreko ahaideak eramatea”.

Estaltzen da



→ 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria. Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du familiarteko bat (edo aseguratua izendatzen duen pertsona) aseguruaren etxeraino iristeko bidaia, hegazkinez hegaldi erregularrean (turista-klasean), trenez (1. klasean) edo taxiz, 16 urteko seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta lehen graduko aurreko ahaideak zaindu ditzan.

Nahitaezkoa da lehen graduko aurreko ahaideak etxe berean bizitzea eta mendekotasuna izatea, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Berme hau bateraezina da beste berme hauekin: “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak zaintzeko etxez etxeko laguntzailea”, “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eramatea”, “Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko etxez etxeko laguntzailea” eta “Lehen graduko aurreko ahaideak eramatea”.

→ 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta aurreko ahaideak eramatea. Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du bidaia, hegazkinez hegaldi erregularrean (turista klasean), trenez (1. klasean) edo taxiz, 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eta lehen graduko aurreko ahaideak Aseguratuak izendatutako familiartekoaren Espainiako bizilekura eramateko.

- Nahitaezkoa da lehen graduko aurreko ahaideak etxe berean bizitzea eta mendekotasuna izatea, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- Berme hau bateraezina da beste berme hauekin: “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria”; “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak etxean zaintzeko laguntzailea”; “16 urtetik beherako seme-alabek edo desgaitasuna dutenek eskolako lanak egiteko etxeko laguntza”; “Lehen graduko aurreko ahaideak etxean zaintzeko laguntzailea”; eta “Lehen graduko aurreko ahaideak zaintzeko familiarteko baten joan-etorria”..

Estaltzen da



→ 16 urtetik beherako seme-alaben edo desgaitasuna dutenen laguntzailea. Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du seme-alaba adingabeei lagun egiteko Aseguratuak edo Aseguru Etxeak berak Espainian izendatutako pertsonarentzako joan-etorriko txartela.

Laguntzailea Aseguru Etxeak izendatuko du aseguratuak ezin duenean pertsona heldu bat izendatu.

→ 16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eskolara eta eskolatik etxera laguntzea. Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du laguntzaile bat aurkitzea eta bidaltzea, egunean gehienez 4 aldiz eta gehienez 10 egunez eskola-laguntzea egiteko, familiartekorik ez badago hori egiteko moduan, eta gehienez hilabeteko epean.

→ 16 urtetik beherako seme-alabek edo desgaitasuna dutenek eskolako lanak egiteko etxeko laguntza. 16 urtetik beherako seme-alabak mugitu ezinda geratzen badira ikasturtean zehar (oporraldietan izan ezik) eta etxean 2 aste baino gehiago egin behar badituzte, Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du irakasle partikular bat bidaltzea seme-alabentzat, egunean gehienez 3 orduz eta lehenengo egunetik hasita. Ordu horiek hiru hilabeteko epean zehar banatuko dira gehienez ere, eta berme hau bateraezina da “16 urtetik beherako seme-alabak edo desgaitasuna dutenak eramatea” bermearekin.

→ Konpainiako etxeko animaliak zaintzea. Aseguru Etxeak antolatuko du eta bere gain hartuko du katuen eta txakurren garraioa eta ostatua hilabeteko epean gehienez.

→ Familiako laguntzaile bat ospitaleratutako aseguratuaren ondora eramateko joan-etorria. Aseguratua ospitaleratuta dagoenean eta ospitalean 48 orduetik gora egingo dituela aurreikusten denean, eta lagun egiteko beste inor ez duenean, Aseguru Etxeak joan-etorriko txartel bat jarriko du aseguratuaren familiarteko baten eskura, egokien irizten zaion garraiobidean, aseguratuaren ondora joan dadin.

Estaltzen da



- Familiarteko baten ostatu-gastuak. Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu ospitaleratutako aseguruarengana joandako familiartekoaren edo lagun-egilearen hoteleko ostatu- eta gosari-gastuak, ospitalizazioa amaitu arte, bi eguneko mugarekin eta egunean gehienez 60 euroko mugarekin.
- Botikak bidaltzea. Aseguru Etxea arduratuko da botikak bilatzeaz eta aseguraturia dagoen lekura bidaltzeaz, hiru aldiz gehienez hilabete batean zehar. Botikak zirkulazio-istripuaren ondorioz preskribatutakoak izan daitezke, edo istripuarekin zerikusirik ez duten osasun-arazoak tratatzekoak, baina aseguratuak ibilgailu aseguruarekin izandako istripu baten ondorioz mugitu ezinik egon behar du nahitaez.
- Mezu urgenteak transmititzea eguneko 24 orduetan. Aseguru Etxea arduratuko da estalitako ezbeharren ondoriozko mezu urgenteak transmititzeaz, aseguratuak hala eskatzen badiu, hornitzaile-sarearen bidez.

ISTRIPU PERTSONALAK ETA EGUNEROKO BIZITZARAKO LAGUNTZA

Eguneroko bizitzarako laguntza

Ez dira estaltzen



→ Pertsona aseguruaren izaera ez duten ibilgailu aseguruaren beste bidaide batzuentzako prestazioak.

→ Droga toxikoen edo sorgogarrrien eraginpean edo mozkortuta dagoela gidariak aseguraturako ibilgailuarekin zirkulatzetik eratorritako prestazioak. Gidaria mozkortuta zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiagoa bada, edo epai judizialean frogatutzat ematen bada inguruabar horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeharrak gertatzeko.

→ Pertsonal sanitarioak etxean emateko zerbitzu-prestazioak, hala nola, erizainak, OLTak, mediku-espezialitateak, fisioterapia, errehabilitazioa, ergoterapia.

→ Etxeko laguntzailearen estalduraren arabera erosi beharreko jakien eta premiazko gaien kostua, erosketa horiek egiteko behar den dirua erosketa egin aurretik jarri beharko baitu aseguratuak.

→ Botikeren kostua; kostu hori botikak entregatzean abonatu beharko dio aseguratuak Aseguru Etxeari, botikak bidaltzeko bermea baliatzen badu.

→ Aseguru Etxeak ez du bere gain hartzen botikeren entrega atzeratzearen edo botikeren egoeraren erantzukizunik.

→ Aseguru Etxeak tokiko agintariek hartutako akordioaren mugen barruan bakarrik esku hartu ahal izango du.

Ez dira estaltzen



→ Aseguru Etxeak ez du erantzukizunik izango kontratu-betebeharrak betetzeko eragozpenak edo ezintasunak sortzen badira ezinbesteko kausaren batengatik, hala nola gerra zibilak edo atzerrikoak, errebolta, herri-mugimenduak, matxinadak, grebak, sedizioak eta indar publikoen errepresaliak, debeku ofizialak, pirateria, leherketak, efektu nuklear edo erradioaktiboak edo klima-arazoak.

→ Mendi-ibilien edo lehiaketatik kanpoko elur-kiroletako jardueren ondoriozko gertakariak, mendi-goietan (3.000 metrotara, itsasoaren mailatik gora) edo balizatu gabeko pista libreetan egiten badira.

→ Aurreko puntuetan aurreikusituz diren jardueretan, kanpoan geldituko dira apustuetan, kirol-lehiaketetan eta/edo arrisku handikoetan parte-hartzearen ondoriozkoak, arrisku handiko jardueratzat hartuz jarduera fisiko eta kirolekoa, lehiaketa zein lehiaketatik kanpooka, baldin eta irismen zaileko lekuetan egiten bada, ezaugarri geografiko zein politikoei dagokienez, eta/edo erreskate espezializatuetan aditutako taldeak eskatzen badituzte.

Adibideak

→ Nire patinetearekin zirkulatzean, eroriko bat izan dut, eta, horren ondorioz, mugitu ezinik egon behar dut etxean, ezarritako medikazio jakin batekin. Medikazioa ez dago estalita.

→ Bizikletarekin egindako irteera batean, ibilgailu batek jo nau eta lesioak eragiten dizkit. Horren ondorioz, etxean mugitu ezinik egon behar dut eta fisioterapia-tratamendua behar izan dut. Fisioterapeuta-saioak ez daude estalita.

BIDAIAKO LAGUNTZA

Bidaiaiko laguntza Baldintza Partikularretan deklaraturako bizikleta, bizikleta elektriko eta mugikortasun pertsonaleko ibilgailuetarako.

BERME HAU APLIKATZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA ESPRESUKI ADIERAZTEA, BALDINTZA PARTIKULARRETAN, BARNEAN SARTZEN DELA.

Ezbeharraren jakinarazpena

Aseguratuak ezbeharra gertatu dela jakinarazi beharko dio Aseguru Etxeari, eta ezbeharra behar bezala kudeatzeko behar duen informazio guztia eman beharko dio. Jakinarazpen hori eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan eman ahal izango da; hauek dira harremanetarako bideak:

Telefonoa: 900 38 08 38

Atzeritik: 00 34 944 05 14 12

Lurralde-eremua

Berme honen prestazioak aplikagarriak dira Espainian, Europar Batasuneko herrialdeetan, Suitzan, Gibraltarren, Andorran eta Monakon.

Aldez aurretiko konfiantza

Berme honek prestazio-multzo bat ematen du, aldez aurretiko konfiantza dela medio aplika daitekeena aseguratuak Espainian edo Europan aseguraturako ibilgailuarekin egiten dituen joan-etorrietan gerta daitezkeen arazo ugarietarako.

Bermearen norainokoa

Berme honetan, aseguraturat hartzen da desplazamendu batean aseguraturako ibilgailuaren erabiltzailea den pertsona fisikoa. Era berean, bigarren pertsona bat aseguraturak izango da, baldin eta aseguraturako ibilgailuan aulki homologatu batean bidaide gisa bidaiatzen duen adingabea bada eta ibilgailua bizikleta edo bizikleta motorduna bada.

Aseguraturako ibilgailua polizako Baldintza Partikularretan izendaturakoa izango da, baldin eta bizikleta, pedal-eragite lagundua duen bizikleta elektrikoa edo mugikortasun pertsonaleko ibilgailua (MPI) bada, 25 km/h-tik

gorako gehieneko abiadura gainditzen ez duena eta automobilaren nahitaezko aseguru edukitzeko beharra inola ere ez duena.

Espainia barruko desplazamenduetan eta Espainiatik kanpoko hiru hilabetetik beherako iraupena duten egonaldietan bakarrik aplikatuko dira ondoren azaltzen diren bermeak.

Aseguru Etxeak zuzenean emango ditu prestazio horiek, edo aseguratuaren eta Aseguru Etxearen arteko aurretiazko akordio bidez. Aseguru Etxeak gero ez du parte hartuko aseguratuak bere ekimenez ordaindutako gastuetan. Hala ere, une horretan Aseguru Etxearekin harremanetan jartzeko aukerarik izan ez eta arrazoizko ekimenak hartu dituen aseguratuak ez zigortzeko, gastuak itzultzeko aukera aztertuko du Aseguru Etxeak, behar diren frogagiriak aurkeztuta, berak zuzenean parte hartu izan balu ordainduko lituzkeen gastuen mugara arte.

Laguntzarako bermeak inoiz ere ez dira aplikatuko zerbitzu publikoen ordez, bereziki larrialdi-laguntzetan.

Abusuzko portaera

Aseguru Etxeak erabakitzen badu aseguratuaren batek abusuz edo doloz jokatu duela, jokabide horren ondorioz zuzenean sortutako gastuak erreklamatu ahal izango ditu, osorik nahiz zati batean.

Kasu medikoak

Hitzarmen honen espiritua da aseguratuaren eskaerei berehala erantzutea, arazo zehatzei aurre egin beharrean daudenean, aldez aurretiko konfiantzan oinarrituta, atarikoan azaldu bezala.

Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu Europar Batasunaren barruan atzerrian sortutako medikuen irizpideen araberako premiazko beharrian mediko baten ondoriozko gastu mediko hauek: kontsultak, tratamenduak, aparatu medikoak, optikoak, protesiak eta gastu odontologikoak.

Premiazko beharrian medikotzat hartuko da aseguratuak ibilgailuarekin istripua izan eta ustekabeko eta bat-bateko osasun-arazo bat agertzearen ondoriozko beharra, aseguratuak berehala artatzeko beharra sortzen duena edo gehienez ere 6 orduren buruan artatu behar dena, ondorioak larriagotzea saihesteko edota bizitza bera ere arriskuan egon daitekeelako. Kanpoan geratuko dira espresuki estetiko hutsak diren tratamenduak.

Aurreratutako zenbatekoaren frogagiriak eta itzulketa

Aseguru Etxeak beretzat gordetzen du bermea aplikatzea eragin duen gertakariaren txosten eta proba medikoak eta frogagiriak erreklamatzeko eskubidea, baita, kasua denean, lapurretaren salaketaren kopia erreklamatzekoa ere.

Subrogazioa

Bere gain hartzen dituen gastuei buruz, Aseguru Etxea subrogatuta geratuko da -Aseguru Kontratuaren Legeak 43. artikuluan ezarritako baldintzetan-, aseguratuak ezbeharraren erantzuleetako edozeinen kontra izan ditzaketen eskubide eta akzioei dagokienez. Era berean, osasun-laguntzako aseguru-kontratu baten, gizarte-segurantzaren edo beste edozein entitate publiko nahiz pribaturen bitartez, aseguratuak poliza honetan aurreikusten diren bermeak estalita baditu -osorik nahiz zati batean-, entitate horiek estali duten gastuen zatia Aseguru Etxeari itzuli beharko dio aseguratuak.

BIDAIAKO LAGUNTZA

Ibilgailuarentzako eta gidariarentzako laguntza

Ibilgailuei laguntzea matxura, istripua, lapurreta edo aseguratutako ibilgailuaren gidariaren gaixotasuna izanez gero, ibilgailuarekin bidaiatzen ari den bitartean, eta desplazamenduarekin jarraitzea eragozten badu.

Estaltzen dira



→ Ibilgailuaren garraioa. Ibilgailua ezin bada konpondu matxuraren edo istripuaren lekuan bertan edo istripu baten ondorioz ibilgailuaren gidaria gidatzeko moduan ez badago, Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du ibilgailua aseguruaren ohiko bizilekuraino edo kanpoan bidaiatzen ari dela aseguruak duen bizilekuraino (aseguratutako ibilgailuarekin ibilbidea hasitako lekua) eramatea, 100 km-ko mugarekin eta gehienez 200 euroko kostuarekin.

Atoian eramateko prestazioak estalita daude matxura, istripua edo gaixotasuna sortzen badira ibilgailuak autobietan, errepide autonomikoetan, arruntetan, nazionaletan, eskualde-mailakoetan eta lokaletan zirkulatzen duen bitartean, betiere kokapen zehatza ezagutzen bada, bidearen egoerak laguntza-ibilgailuak normaltasunez iristeko aukera ematen badu eta kaltetzeko arriskurik ez badago esku hartzen duten pertsonentzat eta ibilgailuentzat.

Matxuratzat hartuko da aseguratutako ibilgailuaren gurpilek zuloa izatea edo aire-falta izatea baldin eta aseguruak ibilgailua konpontzeko eta zirkulatzen jartzeko aukera ematen duen baliabiderik ez badu.

BIDAIAKO LAGUNTZA

Gidariari laguntzea matxura, istripua edo lapurreta izanez gero

Estaltzen dira



→ Pertsonen itzulera, ibilgailua lapurtuz gero edo ibilgetuta geratuz gero. Ibilgailua ezin bada konpondu matxuraren edo istripuaren lekuan bertan edo istripu baten ondorioz ibilgailuaren gidaria gidatzeko moduan ez badago, Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du gidaria eta bidaide gisa aulki homologatuan bidaiatzen duen balizko bidaiari adingabea aseguruaren ohiko bizilekuraino edo kanpoan bidaiatzen ari dela aseguruak duen bizilekuraino (aseguratutako ibilgailuarekin ibilbidea hasitako lekua) eramatea, Aseguru Etxearen ustez egokienak diren garraioak erabiliz: taxia, 1. klaseko trena, alokairuko ibilgailua edo beste garraioak egokiren bat.

Berme hau luzamendurik gabe aplikatuko da, berehala itzultzeko benetako premia izanez gero.

Beharrezkoa denean, Aseguru Etxeak antolatu eta ordainduko du gidaria helburuko lekuraino eramatea, ateratzen den zenbatekoa ez bada etxera itzultzearena baino handiagoa, edozein izanda ere emandako bermeak.

Ibilgailua lapurtu edo ibilgetuta geratuz gero, pertsonak beren bizilekuetara itzultzearen laguntza ezingo da metatu pertsonak helburuko lekura eramatearekin.

BIDAIAKO LAGUNTZA

Zirkulazio-istripuan zauritutako edo hildako gidariari laguntzea

Aseguratutako ibilgailuaren gidaria zaurituz gero aseguratutako ibilgailuarekin izandako zirkulazio-istripuaren ondorioz. Estaldura hau bigarren pertsona bati ere zabaldu dakiok, aseguratutako ibilgailuan aukri homologatu batean bidaide gisa bidaiatzen duen adingabea bada:

Estaltzen dira



→ Pazienteak aberriratzea. Medikuek erabakitako premia izanez gero, Aseguru Etxeko medikuek erabakiko dute, zauritua artatzen duten medikuekin adostuta, inguruabarren arabera, aseguratua hauetako batera eramatea: ospitale-zentro egokiago batera, bere bizilekutik hurbilago dagoen ospitale-zentro batera, nahiz ohiko bizilekuraino edo kanpoan bidaiatzen ari dela aseguratua duen bizilekuraino (aseguratutako ibilgailuarekin ibilbidea hasitako lekua), horretarako baliabide egokienak erabiliz: anbulantzia, tren, helikopteroa, linea erregularreko hegazkina, osasun-hegazkin berezia edo beste edozein baliabide, egoera horretan egokia bada, eta medikuek etengabe zainduta, hala behar izanez gero.

Kasu horietan guztietan, Aseguru Etxeak antolatuko du aberriratzea, eta bere gain hartuko ditu zauritutako aseguratua bere bizilekuraino eramateko gastuak, baita Aseguru Etxeko medikuek aseguratua bizilekuraino aberriratu aurretik tarteko garraio bat beharrezkotzat jotzen badute ere.

Ahal den guztietan, aukera emango zaio familiako kide bati gaixoarekin edo zaurituarekin batera joateko, lekualdatzen ari den bitartean.

→ Hoteleko egonaldia luzatzeagatik sortutako gastuak. Aseguratutako gidari zauritua ospitalean egon ondoren hoteleko egonaldia ustekabean luzatu behar izanez gero, Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu ostatu-gastuak, eta logelari eta gosariari dagozkienak, gau bakoitzeko 60 euroko mugarekin eta 10 egunez gehienez ere.

Estaltzen dira



→ Familiako kide bat bertan egotea. Lekuz aldatu ezin den aseguratutako gidari zauritua ospitalean dagoenean eta ospitalean egin beharreko denbora hasiera batean 5 egun baino gehiagokoa denean, Aseguru Etxeak aseguruaren familiarteko bati joan-etorriko garraioidea jarriko dio eskura, gaixoarekin egon ahal izan dadin.

Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu familiartekoaren hoteleko egonaldi-gastuak, gau bakoitzeko 60 €-ko mugarekin eta 10 egunez gehienez ere.

→ Atzerriko mediku-gastuen ordainketa. Gizarte Segurantzak eta/edo aurreikuspeneko beste edozein erakundek emandako prestazioen osagarri gisa, Aseguru Etxeak bere gain hartuko ditu zirkulazio-istripuan zauritutako aseguratutako gidariak behar dituen gastu mediko, kirurgiko, farmazeutiko eta ospitaleratzekoak, gehienez ere 6.500 €-ra arte ezbehar bakoitzeko.

Gastu medikoak Gizarte Segurantzak edo beste edozein aseguru-kontratuk estaltzen baditu eta soil-soilik aseguruak gastu horiek ordaindu behar izan dituzenean, Aseguru Etxeak funtsak aurreratzeko hartuko du parte, eta gero itzuli egin beharko zaizkio zenbateko horiek.

Halakoetan, aseguruak konpromisoa hartzen du erakunde horien aurrean behar diren izapideak egiteko, gastu horien zenbatekoa berreskuratzeko eta Aseguru Etxeari itzultzeko.

BIDAIAKO LAGUNTZA

Zirkulazio-istripuan zauritutako edo hildako gidariari laguntzea

Aseguratutako ibilgailuaren gidaria hilez gero aseguratutako ibilgailuarekin izandako zirkulazio-istripuaren ondorioz. Estaldura hau bigarren pertsona bati ere zabaldu dakioke, aseguratutako ibilgailuan aulki homologatu batean bidaide gisa bidaiatzen duen adingabea bada:

Estaltzen dira



- Gorpua aberriratzea. Aseguratutako gidaria joan-etorri batean hiltzen bada, Aseguru Etxeak antolatu eta bere gain hartuko du bere gorpuzkiak Espainian ehortzi behar diren lekura eramatea.
- Bidaiari hildako aseguruarekin zihoazen familiartekoak ezin izango balira hasieran aurreikusitako bitartekoen bidez itzuli, Aseguru Etxeak bere gain hartuko du lehen klaseko tren-txartel bat, linea erregularreko hegazkin batean turista-klasean bidaiatzeko txartel bat edo beste edozein bitarteko egokirako txartela erosteko ardura, Espainian ehorzketa egingo den lekura iristeko.

Adibideak

- Bizikletarekin egindako irteera batean, nire bizilekutik 30 km-ra errepidean dagoen zulo batean, bizikletaren haguna tolestu egin da, eta ezin izan dut jarraitu. Bidaiako laguntzaren estaldurak etxera eramango nau nire bizikletarekin batera.
- Bizikleta lapurtu didate (nire lantokiaren azpian behar bezala giltzapetuta utzi nuen). Bidaiako laguntzaren estaldurak etxera eramango nau.

BIDAIAKO LAGUNTZA

Ez dira estaltzen



→ Aseguru Etxeak tokiko agintariek hartutako akordioen mugen barruan bakarrik esku hartu ahal izango du.

→ Aseguratutako ibilgailua mantentzeko zabarkeriaren ondoriozko edo ibilgailuaren zirkulazioa ez diren helburuetarako erabiltzearen ondoriozko matxurengatik prestazioak.

→ Droga toxikoen edo sorgogarrien eraginpean edo mozkortuta dagoela gidariak aseguratutako ibilgailuarekin zirkulatzetik eratorritako prestazioak. Gidaria mozkortuta zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiago bada, edo epai judizialean frogatuzat ematen bada inguruabar horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeherra gertatzeko.

→ Ez dira gaixotasuntzat hartuko intentsitate handiko kirol-jarduera baten ondoriozko neke fisikoarekin bateragarriak diren sintomak.

→ Aseguratutako ibilgailuaren apopilatzearen ondoriozko gastuak, baldin eta aseguratutako ibilgailua ezingo balitz jaso aseguruaren bizilekuan edo bere konfiantzako hirugarren baten bizilekuan bere udal-mugarte berean.

→ Aseguru Etxeak ez du erantzukizunik izango kontratu-betebeharrak betetzeko eragozpenak edo ezintasunak sortzen badira ezinbesteko kausaren batengatik, hala nola gerra zibilak edo atzerrikoak, errebolta, herri-mugimenduak, matxinadak, grebak, sedizioak eta indar publikoen errepresaliak, debeku ofizialak, pirateria, leherketak, efektu nuklear edo erradioaktiboak edo klima-arazoak.

→ Kirol-jardueren ondoriozko gertakariak, mendi-goietan (3.000 metrotara itsasoaren mailatik gora) edo balizatu gabeko pista libreetan egiten badira.

Ez dira estaltzen



→ Hirugarren batzuk salbatzeko edo erreskatatzeko lanetan gertatutakoak.

→ Aurrekopuntuetan aurreikusiez diren jardueretan, kanpoan geldituko dira apustuetan, kirol-lehiaketetan eta/edo arrisku handikoetan parte hartzearen ondoriozkoak, arrisku handiko jardueratzat hartuz jarduera fisiko eta kirolekoa, lehiaketa zein lehiaketatik kanpokoak, baldin eta irismen zaileko lekuetan egiten bada, ezaugarri geografiko zein politikoei dagokienez, eta/edo erreskate espezializatuetan aditutako taldeak eskatzen badituzte.

→ Itsasoan, mendian eta basamortuan bilatzeko eta erreskatatzeko gastuak.

Adibideak

→ Mendiko bizikleten lasterketa batean parte hartzean, istripu bat izan dut, eta bai bizikletak eta bai nik kalteak jasan ditugu.

→ Bizikletaz etxetik urrun egindako irteera batean, oso nekatuta sentitu naiz, eta ahalegin handia egin behar dut etxera itzultzeko.

→ Mendian pista balizatuetatik barna istripuren bat edo matxuraren bat izaten badut, laguntza-ibilgailuak gertuen dagoen lekuan emango du laguntza, autobia, errepide nazional, eskualde-errepide eta lokaletatik, betiere bidearen baldintzek normaltasunez sartzeko aukera ematen badiote.

LAPURRETA

Estaltzen dira



→ Estaldura espresuki kontratatuta badago eta Baldintza Partikularretan ezarritako mugaraino, aseguratutako ibilgailuaren balioa eta/edo aseguratutako ibilgailuak jasandako kalteak, baldin eta ibilgailua lapurretaren ondorioz desagertu bada gauzetan indarra edo bortizkeria erabiltzea dakarten egintzen bidez.

Estaldurak honako baldintza hauek guztiak betetzen badira soilik izango du eragina:

- Ibilgailua erabat lapurtzea (halakotzat hartuz bizikletaren koadroa lapurtzea).
- Gorabeheraren unean aseguratutako ondasuna behar bezala ainguratuta egotea, segurtasun-giltzarrapo homologatu baten bidez, objektu edo elementu finko bati.

Baldintza partikularretan adierazitako kapitalaren gehieneko muga, eta 2 ezbehar gehienez aseguruaren urtaldi bakoitzeko.

Ezbeharraren unean ibilgailuak duen zenbatekoaren %20koa izango da ezbehar bakoitzeko, 150 euroko gutxieneko zenbatekoarekin.

Kalte-ordaina eta ibilgailuaren balioaren balorazioa

Aseguratutako ibilgailua eta ibilgailua osatzen duten osagai indibidualak baloratuko dira **birjartze-kostuaren** arabera edo Baldintza Partikularretan deklaraturako klase, kalitate eta gaitasun operatiboko bertsuko beste **berri batekin ordezteko kostuaren** arabera.

Berritako kalte-ordainaren oinarri hori ibilgailuaren antzintasuneko lehen bi urteetan egongo da indarrean, deklaraturako erosketa-datatik aurrera. **Bigarren urtetik aurrera, % 10eko balio-galera itundua aplikatuko da ibilgailua eskuratzen den egunetik aurrera, berritako erosketa-balioan oinarrituta.**

- **Balio-galera hori gehienez ere % 70 arte egongo da mugatuta.**

Erregela proportzionala

Deklaraturako balio aseguratua aseguratutako ibilgailuaren merkatuko berritako balioa baino txikiagoa bada, kalte-ordaina proportzio berean murriztuko da.

Lapurreta- eta espoliozio-kasuetarako, ibilgailua 60 egun baino gutxiagoko epean berreskuratzen bada, Aseguratuak jasotako kalte-ordaina itzuliko da.

Adibideak

→ Normalean joaten naizen gimnasiotik gertuko bizikleta-aparkalekuan bizikleta behar bezala giltzapetuta utzi ondoren, irtetean bertan ez zegoela ikusi dut.

→ Nire bizikleta lapurtu didate. Duela 4 urte erosi nuen, 3.000 euroko berritako balioarekin. Dagokidan kalte-ordaina berritako erosketa-zenbateko horretan oinarrituko da, eta igarotako urte bakoitzeko % 10eko balio-galera izango du. 4 urte igarotakoan, balio-galera % 40koa izango da (1.200 €), eta kalte-ordaina 1.800 eurokoa.

LAPURRETA

Ez dira estaltzen



- Aseguratutako objektua galtzea edo desagertzea, bai eta haren atrakoa/espoliazioa ere.
- Aseguratutako ibilgailua erabat lapurtzeaz bestelako lapurretak (zela, eskulekua, gurpilak, etab. lapurtzea).
- Ibilgailu aseguruaren lapurretak, giltzarrapoa CE, SRA, SSL, ART, SSF, VDS edo FG zigiluarekin homologatuta dagoenean.
- Lapurretak, baldin eta aseguratutako ibilgailuak gaua edo 24 ordu baino gehiagoko epea bide publikoan pasatu badu.
- Patinete elektrikoaren lapurreta.

Adibideak

- Erosketa bat egitera joatean, MPIa dendatik kanpo utzi dut kanpoko paretan bermatuta, eta irtetean ez zegoen bertan.
- Bizikleta nire lantokiaren azpian behar bezala giltzapetuta utzi ondoren, lanalditik irtetean ikusi dut atzeko gurpila falta zaiola.

ISTRIPUZ GERTATUTAKO KALTEAK

Estaltzen dira



→ Bermea espresuki kontratatuta badago eta Baldintza Partikularretan ezarritako mugaraino, objektu aseguruak zirkulaziotik eratorritako istripu baten ondorioz izan ditzakeen zuzeneko kalteak bat-batean eta ustekabean gertatutakoa eta zure asmoez bestelakoa. Estaldurak efektua izango du baldin eta kontratu honetan espresuki kanpoan utzitako gertakaria ez bada.

Baldintza partikularretan adierazitako kapitalaren gehieneko muga, eta 2 ezbehar gehienez aseguruaren urtaldi bakoitzeko.

Ezbeharraren unean ibilgailuak duen zenbatekoaren %20koa izango da ezbehar bakoitzeko, 150 euroko gutxieneko zenbatekoarekin.

Ibilgailuaren balioa baloratzea eta identifikatzea

Aseguratutako ibilgailua eta ibilgailua osatzen duten osagai indibidualak baloratuko dira **birjartze-kostuaren** arabera edo Baldintza Partikularretan deklaraturako klase, kalitate eta gaitasun operatiboko bertsuko beste berri batekin ordeztzeko kostuaren arabera.

Berritako kalte-ordainaren oinarri hori ibilgailuaren antzinatasuneko lehen bi urteetan egongo da indarrean, deklaraturako erosketa-datatik aurrera. **Bigarren urtetik aurrera, % 10eko balio-galera itundua aplikatuko da ibilgailua eskuratzen den egunetik aurrera, berritako erosketa-balioan oinarrituta.**

- **Balio-galera hori gehienez ere % 70 arte egongo da mugatuta.**

Ezbeharraren ondorioz ibilgailu aseguratua erabat galtzen bada, ezbeharra gertatu denetik aurrera kalte-ordainak eragindako estaldurarik gabe kontratatuta geratuko da poliza. Aseguru-etxeak, kalte-ordaina emanaz gero, ez dio aseguratuari eragindako estaldurari dagokion primaren inolako zatirik ordaindu beharko.

Erabateko galera gertatu dela ulertuko da baldin eta ezbeharra izandako ibilgailua konpontzeko estimatzen den zenbatekoa berritako erosketa-balioa baino handiagoa bada, hitzartutako balio-galera % 10etik gorakoa izanik bigarren urtetik aurrera.

Erregela proportzionala

Deklaraturako balio aseguratua aseguratutako ibilgailuaren merkatuko berritako balioa baino txikiagoa bada, kalte-ordaina proportzio berean murriztuko da.

Adibideak

→ Nire patinetearekin nabilela, ez dut pasatzen uzteko seinalea errespetatu, eta ibilgailu batek kolpea eman dit. Horren ondorioz, nire ibilgailuak kalteak jasan ditu.

→ Nire bizikletaz egindako irteera batean, mendate bat jaistean eroriko bat izan dut, eta, horren ondorioz, aurreko urkila eta atzeko haguna hautsi egin dira.

→ Nire bizikletarekin zirkulatzen ari nintzela eroriko bat izan dut, eta bizikleta baliogabetuta geratu da. Duela 4 urte erosi nuen, 3.000 euroko berritako balioarekin. Dagokidan kalte-ordaina berritako erosketa-zenbateko horretan oinarrituko da, eta igarotako urte bakoitzeko % 10eko balio-galera izango du. 4 urte igarotakoan, balio-galera % 40koa izango da (1.200 €), eta kalte-ordaina 1.800 eurokoa.

ISTRIPUZ GERTATUTAKO KALTEAK

Ez dira estaltzen



- Aseguratutako objektuaren edozein barne-matxura, salbu eta matxura eragin duen istripuzko kanpoko gertaera estalita bazegoen.
- Kalte estetikoak edo objektua funtzionatzea eragozten ez dutenak, hala nola marradurak, atzamarkadak, pintura-falta eta urratuak.
- Objektuaren berezko erabileraren eta higaduraren ondoriozko kalteak, hala nola eguzkiaren eragina, hezetasuna, oxidazioa edo korrosioa.
- Asegurua kontratatzean zeuden kalteak, akatsak edo bizioak.
- Droga toxikoen edo sorgogarrien eraginpean edo mozkortuta dagoela gidariak aseguraturako ibilgailuarekin zirkulatzetik eratorritako prestazioak. Gidaria mozkortuta zegoela ulertuko da alkohol-maila legeak finkatutakoa baino handiagoa bada, edo epai judizialean frogatutzat ematen bada inguruabar horiek eragin nabarmena izan zutela ezbeharra gertatzeko.

Adibideak

- Detektatu dut nire bizikletaren martxak gaizki daudela eta ez dutela behar bezala saltatzen.
- Nire patinetearen bateria maiz deskargatzen da, eta, horregatik, joan-etorri laburretarako bakarrik erabil dezaket.

NOLA JOKATU EZBEHARRA GERTATUTAKOAN

Betebeharrak

Ezbehar bat gertatzen denean, aseguru-hartzaileak edo aseguratuak betebehar hauek izango dituzte:

Beren esku dauden baliabideak erabiltzeko, ezbeharraren ondorioak arintzeko. **Eginbehar hau ez betetzeak eskubidea emango dio Aseguru Etxeari bere prestazioa murrizteko, egokia den proportzioan, kontuan hartuz zenbaterainokoak izan diren hortik sortutako kalteen garrantzia eta aseguratuaren errua.**

Ez betetze hori egingo balitz Aseguru Etxeari kalte egiteko edo iruzur egiteko asmo nabariz gertatu bada, Aseguru Etxeak ez du ezbeharraren ondoriozko prestazioa eman beharrik izango.

Ezbeharra ezagutu eta gehienez ere zazpi eguneko epean Aseguru Etxeari jakinaraztea, polizaren Baldintza Partikularretan epe luzeagoa finkatzen ez bada behintzat.

Betebehar hori betetzen ez bada, ezbeharraren berri ez ematearen ondoriozko kalte-galerak erreklamatu ahal izango ditu Aseguru Etxeak, ezbeharraren berri beste bide batetik izan duela frogatzen ez bada behintzat.

Aseguru Etxeari era guztietako informazioa emateko, ezbeharraren inguruabar eta ondorio guztiei buruz.

Informatzeko eginbehar hori ez betetzeak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galtzea ekarriko du, doloa edo erru larria izan denean. Erantzukizun Zibileko bermeak estalitako ezbeharretan Aseguru Etxeak horiekin erlasionatutako kudeaketa guztien zuzendaritza hartuko du, aseguratuaren izenean jokatzu kalteuekin, haien eskubidedunekin edo erreklamatzailleekin tratatzeko, eta aseguratuak ahal duen guztian laguntzeko konpromisoa hartuko du. **Laguntza hori ez emateagatik ezbeharraren defentsa egiteko aukerak murriztuko balira edo kalte egingo balitzaie, Aseguru Etxeak aseguratuari erreklamatu ahal izango dizkio kalte-galerak, aseguratuak izandako erruaren eta jasandako kaltearen proportzioan.**

Ezbeharraren hondakinak kontserbatzea kalteen likidazioa amaitu arte, materialki ezinezkoa dela justifikatzen denean izan ezik, nahiz eta horrek ez duen kalte-ordain berezirik ekarriko; arreta jartzea kalte edo desagertze gehiago izan ez dadin, horiek aseguratuaren kargurakoak izango bailirateke;

eta, kontrako hitzarmenik ezean, aseguratutako gauzak ez abandonatzea, ez osorik eta ez zati batean ere.

Aseguratuari dagokio gauza horiek bazirela frogatzea. Hala ere, polizaren edukia bera aseguratua aldeko presuntzioa izango da, arrazoi justifikatuengatik froga eraginkorragorik ezin denean aurkeztu.

Nolanahi ere, ezbeharrari dagokionez ezingo da kaltetutako beste hirugarren baten erreklamaziorik negoziatu, baztertu ezta onartu ere, Aseguru Etxeak espresuki horretarako baimenik ematen ez badu behintzat.

Ezbeharren jakinarazpena

Aseguratuak edo Aseguru Hartzaileak gertaeraren ezagutza izandako egunetik kontatzen hasi eta 7 eguneko epean salatu behar du gertaera, LAPURRETA ezbeharretan, polizia-agintari lokalen aurrean, Asegurua badagoela adieraziz, eta Aseguru Etxeari salaketaren kopia bat bidaliz.

Horrez gain, Aseguru Etxeari idatziz helarazi behar zaio, ezbeharraren berri eman eta bost egun pasatu baino lehen, ezbeharra gertatu zenean zeuden gauzen zerrenda, salbatu direnena eta kalte edo galeren estimazioa.

Kalteen balorazioa

Asegurua ezin da izan Aseguratua bidegabe aberasteko bitartekoa. Kaltea zehazteko, interes aseguratua ezbeharra gertatu aurreko unean zuen balioa hartuko da kontuan.

Kalte-ordainaren muga: Zenbateko aseguratua Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzean eman beharreko kalte-ordainaren gehieneko muga adierazten du.

Erantzukizun Zibileko estalduran, Baldintza Partikularretan adierazitako zenbateko aseguratua Aseguru Etxeak ezbehar bakoitzean gehienez emango duen kalte-ordaina adierazten du, gorputzeko kalteen edo kalte materialen edo galeren ordainen multzo osorako, edozein izanda ere ukitutako bermeen kopurua.

Lapurreta eta Istripuz gertatutako kalteak estalduretan, ezbeharraren ondorioz aseguratutako ibilgailua erabat galduz gero, poliza deseginda geratuko da inguruabar hori gertatzen den datan bertan. Kalte-ordaina emateak aske uzten du Aseguru Etxea aseguratuari prima-zatiren bat itzultzetik.

Erabateko galera gertatu dela ulertuko da baldin eta ezbeharra izandako ibilgailua konpontzeko estimatzen den zenbatekoa berritako erosketabaliao baino handiagoa bada, hitzartutako balio-galera % 10etik gorakoa izanik bigarren urtetik aurrera.

Erregela proportzionala (infraasegurua)

Deklaratutako balio aseguratuak aseguraturako ibilgailuaren merkatuko berritako balioa baino txikiagoa bada, kalte-ordaina proportzio berean murriztuko da.

Gainasegurua: Zenbateko aseguratuak aseguraturako interesaren balioa nabarmen gaingintzen badu, alderdietako edozeinek eskatu ahal izango du zenbatekoa eta prima murriztea, eta Aseguru Etxeak itzuli egin beharko du jasotako primen gehiegizkoa.

Ezbeharra gertatzen bada, Aseguru Etxeak benetan egindako kaltea ordainduko du. Gainasegurua aseguratuaren fede gaiztoak eragindakoa denean, kontratua baliogabea izango da. Hala ere, Aseguru Etxeak, fede onez, atxiki ahal izango ditu mugaeguneratutako primak eta uneko epealdikoak.

Peritazioa eta arbitrajea

Aseguru Etxeak ahalik eta azkarren joan behar du ezbeharra gertatu den lekura, bere perituaren edo ordezkariaren bidez, tasazio-lanak eta ezbeharraren kausa eta ondorioei buruzko egiaztapenak egiten hasteko.

Alderdiak edozein unetan ados jartzen badira kalte-ordainaren zenbatekoari eta kalte-ordaina emateko moduari buruz, hitzartutako zenbatekoa ordaindu beharko du Aseguru Etxeak edo aseguraturako objektua ordezteko egin beharrekoak egin, duen izaerarengatik hala egin daitekeenean.

Ezbeharra jakinarazi eta ondorengo berrogei egunetan akordiorik lortzen ez bada, arau hauek aplikatuko dira:

Alderdi bakoitzak peritu bat izendatuko du, eta idatziz jaso beharko da haien onarpena. Alderdietako batek izendapenik ez badu egiten, zortzi eguneko epean egin beharko du bere peritua izendatu duen alderdiak errekerimendua egiten dion egunaren biharamunetik kontatuta, eta epe horretan ere egiten ez badu, beste alderdiaren peritu-txostena onartzen duela ulertuko da, eta horri loturik geratuko da.

Perituak ados jarriko balira, baterako akta batean jasoko da, eta akta horretan adieraziko dira ezbeharraren kausak, kalteen balorazioa, kalte-ordaina finkatzeko orduan eragina duten gainerako inguruabarrak eta kalte-ordainaren zenbateko likidoaren proposamena.

Perituen artean adostasunik ez dagoenean, bi alderdiek beste peritu bat izendatuko dute, bien arteko adostasunez. Eta adostasunik ez badago, Borondatezko jurisdikzioko legean edo Notarioen legerian aurreikusitako moduan abiatu ahal izango da espedientea. Kasu horretan, peritu-txostena alderdiek seinalatzen duten epean emango da, edo, horrelakorik ezean, hogeita hamar eguneko epearen barruan, hirugarren Perituak bere izendapena onartzen duenetik kontaktzen hasita.

Perituen irizpena -ahobatezkoa edo gehiengo bidezkoa- berehala eta zalantzarik gabe jakinaraziko zaie alderdiei eta loteslea izango da haientzat, baldin eta alderdietako baten batek judizialki aurkaratzen ez badu, hogeita hamar eguneko epean Aseguru Etxearen kasuan eta ehun eta laurogei eguneko epean aseguratua kasuan, biak jakinarazpen-datatik kontaktzen hasita. Epe horien barruan ez bada dagokion akziorik aurkezten, peritu-txostena erasoezin bihurtuko da.

Perituen irizpena aurkaratzen bada, Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa abonatu beharko du, berak ezagutzen dituen inguruabarren arabera, eta aurkaratzen ez bada, adituek esandako kalte-ordainaren zenbatekoa abonatu du bost eguneko epean.

Alderdi bakoitzak bere perituaren ordainsariak ordainduko ditu. Hirugarren perituaren gastuak eta peritu-tasazioak sor ditzakeen gainerako gastuak erdibana joango dira Aseguratua eta Aseguru Etxearen kontura eta kargura. Hala ere, alderdietako bat izan bada peritazioa egitera behartu duena, kaltearen balorazio guztiz neurrigabekoa egiteagatik, bera izango da gastu horien erantzule bakarra. Aseguru Etxeak eta perituek eskubidea izango dute ezbeharrak izan den jabetzetan sartzeko, liburuak eta dokumentuak aztertzeko, eta Aseguru Etxeak bere interesak defendatzeko arrazoizkoak diren neurri guztiak hartu ahal izango ditu.

Kalte-ordaina ematea

Ezbeharrak izan dela erabakitzeko eta, hala denean, gertatutako kalteen zenbatekoa zehazteko beharrezkoak diren ikerketak eta peritazioak bukatzen direnean, kalte-ordaina ordaintzeko betebeharrak izango du Aseguru Etxeak. Edozein kasutan, Aseguru Etxeak, ezbehar-jakinarazpena jasotzen denetik berrogei egun bete baino lehen, zor dezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du berak ezagutzen dituen inguruabarren arabera.

Aseguratuak Aseguru Etxeari eskatu ahal izango dio zuzenean ordaintzeko haiek hautatutako konpontzaileari kalte-ordainaren zenbateko.

Aseguruaren izaerak aukera ematen duenean eta aseguratua baimena ematen duenean, Aseguru Etxeak kalte-ordaina ordaindu beharrean ezbeharrak hondatutako objektua konpondu edo ordeztu ahal izango du.

Aseguru Etxea berandutzean erortzen bada prestazioa emateko garaian, aseguratuarentzat onuragarrien diren kontratu-klausulak baliozkotzat joko diren arren, ondoko arauen arabera emango da kalte eta galeren ordaina:

1. Oro har, Aseguru Etxeak Aseguru Hartzaileari edo Aseguratuari buruz izandako berandutzeari eragingo dio, eta bereziki, erantzukizun zibileko aseguruan kaltetutako hirugarrenari buruz izandako berandutzeari.
2. Kalte-ordaina ematean —diruz ordaintzean edo hondatutako objektua konpontzean edo ordeztean— izandako berandutzeari aplikatuko zaio, baita Aseguru Etxeak zor izan dezakeen gutxieneko zenbatekoa ordaintzeko garaian izandako berandutzeari ere.
3. Aseguru Etxea berandutzean erori dela ulertuko da, ezbeharrak gertatu eta hiru hilabetera prestazioa eman ez badu, edo ezbeharraren deklarazioa jaso zenetik berrogei eguneko epean zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu ez badu.
4. Berandutzearen kalte-ordaina ofizioz ezarriko du organo judizialak, eta ordaindu beharreko zenbatekoa urteko interesa izango da, honela kalkulatuta: sortzen den garaian indarrean dagoen diruaren legezko interesa % 50ean igoa. Interes hauek egunka sortuak direla kontsideratuko da, erreklamazio judizialik egin beharrik gabe. Hala ere, ezbeharrak gertatu denetik bi urte igaro ondoren, urteko interesa ezingo da ehuneko hogeitik beherakoa izan.
5. Ezbeharrak hondatutako objektua konpondu edo ordezteari dagokionez, interes-kalkuluaren hasierako oinarria konponketa edo ordezte horren zenbateko likidua izango da, eta likideziarik ezak ez du eragotziko interesak sortzen hastea hurrengo 6. atalean adierazten den datan. Gainerako kasuetan, zor den kalte-ordaina izango da kalkuluaren hasierako oinarria, edo Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa bestela.
6. Interes horiek kontaktzen hasteko hasiera-muga ezbeharraren data izango da. Hala ere, Aseguru Hartzaileak, Aseguratuak edo onuradunak ez badute ezbeharraren berri emateko egin beharra bete polizan ezarritako epean edo, subsidiarioki, hura ezagutu eta zazpi eguneko epean, ezbeharraren berri eman den eguna izango da kontaktzen hasteko hasiera-muga. Kaltetutako hirugarrenari edo bere jaraunsleei dagokienez, zenbaki honetako lehen paragrafoan xedatutakoa ez da beteko Aseguru Etxeak frogatzen badu ez zuela ezbeharraren berri izan kaltetuak edo bere jaraunsleek erreklamazioa edo zuzeneko akzioa aurkeztu arte, eta, kasu horretan, erreklamazioa edo zuzeneko akzioa aurkeztzen den data izango da hasiera-muga.
7. Sinteresak kontaktzeko amaiera-muga izango da, Aseguru Etxeak zor lezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu gabeko kasuetan, aurreko

zenbakiaren arabera kalte-ordainaren zenbateko osoarengatik interesak sortzen hasten den eguna, salbu Aseguru Etxeak gutxieneko zenbateko hori lehenago ordaintzen badu, kasu horretan ordainketa horren eguna izango baita muga-eguna. Gainerako kasuetan, berandutze-interesak abonatzeko Aseguru Etxeak duen betebeharraren amaiera-data izango da, aseguratuari, onuradunari edo kaltetunari ordainketa, konponketa edo ordezpenaren bidez kalte-ordaina ematen dion eguna.

8. Kalte-ordaina edo gutxieneko zenbatekoa ez ordaintzea arrazoi justifikatu batean edo leporatu ezin zaionean oinarrituta badago, Aseguratzailleak ez du berandutzeagatiko kalte-ordainik eman beharko.

9. Aseguru Etxearen berandutzeko kalte-ordaina erabakitzean ez da aplikatuko Kode Zibileko 1.108. artikuluan xedatutakoa, ez eta Prozedura Zibilaren Legearen 576. artikuluaen laugarren paragrafoan xedatutakoa ere, azken agindu horretan epaiaren errebokatze erabateko edo partzialari buruz dauden aurreikuspenak izan ezik.

Ezbeharraren ondorioz aseguratutako ibilgailua erabat galduz gero, poliza deseginda geratuko da inguruabar hori gertatzen den datan bertan. Kalte-ordaina emateak aske uzten du Aseguru Etxea aseguratuari prima-zatiren bat itzultzetik.

Erantzukizun zibileko bermeak estaltzen dituen ezbeharretan, kaltetuak edo bere jaraunselek zuzeneko akzioa izango dute Aseguru Etxearen kontra, kalte-ordaina emateko betebeharra bete dezala eskatzeko, Aseguru Etxeak Aseguratuaren kontra duen berreskaera-eskubideari kalterik egin gabe, hirugarrenari egindako kaltea edo galera aseguratua dolozko jokabidearengatik gertatu denean.

Zuzeneko akzioa immunea da Aseguru Etxeak aseguratua kontra izan ditzakeen salbuespenekiko. Hala ere, Aseguru Etxeak kaltetuaren erru eskusiboa eta kaltetuaren kontra dituen salbuespen pertsonalak alegatuz aurka egin dezake. Zuzeneko akzioa egikaritzeari dagokionez, Aseguratuak kaltetutako hirugarrenari edo bere jaraunselei aseguru-kontratua dagoela adierazteko eta horren edukia berri emateko betebeharra izango du.

Subrogazioa

Aseguru Etxea, kalte-ordaina ordaindutakoan, ezbeharraren ondorioz Aseguratuari dagozkion eskubideez eta akzioez baliatu ahal izango da ezbeharraren erantzukizuna dutenen aurrean, betiere kalte-ordainaren mugara arte, eta eskubide hori Aseguratuaren kaltetan erabili gabe; hala ere, Istripu Pertsonalen bermeak babestutako ezbeharretan, urgentziazko Osasun Laguntzarengatik egindako ordainketei dagokienean bakarrik baliatuko dira eskubide horiek.

Bere egintzaz edo omisioz Aseguru Etxeari subrogazio-eskubidean eragin diezazkiokeen kalteen erantzule izango da Aseguratua.

Aseguru Etxeak ez du, legearen arabera, subrogatzeko eskubiderik izango beren egintzaz eta omisioz eta aseguru-kontratu baten bitartez aseguruaren erantzukizuna sorrarazi duten pertsonen aurka, ezta ezbeharraren eragilearen aurka ere, pertsona hori Aseguruaren ahaidea bada -zuzeneko edo zeharkako ahaidea, odolkidetasuneko hirugarren gradura arte-, guraso adoptatzailea bada edo adopziozko semea edo alaba bada. Azken kasu horretan, subrogazioa kontratu horren baldintzekin bat egongo da mugatua bere norainokoan.

Aseguru Etxea eta aseguratua beste hirugarren erantzule baten aurrean batera gertatuko balira, lortutako berreskuratzea bien artean banatuko da bakoitzaren interesaren proportzioan.

Frankiziak

Frankiziarekin kontratatutako bermeetarako, Baldintza Partikularretan adierazitako frankiziaren balioa kalte-ordainetik deskontatuko da.

POLIZAREN OINARRIZKO ARAUDIA

Aseguruaren oinarriak

Aseguru Hartzaileak egindako eta horretarako dagoen galdetegian jasotako deklarazioetan oinarrituta itundu da poliza hau, eta deklarazio horien arabera onartu du Aseguru Etxeak arriskua, eta hala kalkulatu da dagokion prima.

Polizaren edukia eta aseguru-proposamena edo hitzartutako klausulak bat ez badatoz, aseguru-hartzaileak hilabeteko epea izango du, poliza entregatzen zaionetik kontaktzen hasita, Aseguru Etxeari erreklamatzeko desberdintasun hori konpon dezan. Epe hori amaitu eta erreklamaziorik egin ez bada, polizan xedatutakoari jarraituko zaio.

Aseguru Hartzaileak galdetegiko deklarazioetan erreserba, zehaztugabetasuna edo egiazkotasun-falta egingo balu, berak ezagutzen dituen eta arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen inguruabarrei buruz, arau hauek aplikatuko dira:

Aseguru Etxeak kontratua hutsaldu ahal izango du, Aseguru Hartzaileari zuzendutako deklarazio bat eginez hilabeteko epean, erreserba edo zehaztugabetasunaren berri jakiten duenetik kontaktzen hasita. Aseguru Etxearentzat izango dira, bere aldetik dolo edo erru larririk ez bada behintzat, deklarazioa egiten den unean hasita dagoen aseguruaren aldiari dagozkion primak.

Ezbeharrak Aseguru Etxeak deklarazio hori egin baino lehenago gertatzen bada, kalte-ordaina proportzionalki murriztuko da, arriskuaren benetako tamaina ezagutuko balitz aplikatuko litzatekeen primaren eta hitzartutako primaren arteko aldearen proportzioan. Aseguru Hartzailearen aldetik dolo edo erru larririk izan bada, Aseguru Etxea libre geratuko da kalte-ordaina ematek.

Aseguruaren hasiera eta deklarazioa

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan jarriko da indarrean aseguru, eta Aseguru Hartzaileak kontratua alde bakarrez suntsiarazteko ahalmena izango du, Aseguru Etxeak poliza edo behin-behineko estaldura-agiria hari eman eta ondorengo 30 egunen barruan. Kontratua alde bakarrez suntsiarazteko ahalmen hori aipatutako epean idazki bat bidaliz gauzatu beharko du Aseguru Hartzaileak, eta bidalketa egiten den egunetik sortuko ditu ondorioak, une horretan etenda geratuko baita Aseguru Etxearen aldetiko arrisku-estaldura. Aseguru Hartzaileak ordaindutako primaren zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango du, kontratua indarrean egon den denborari dagokion zatia eta legez jasanaraz daitezkeen errekarquen eta zergen zatia izan ezik.

Kontratua deuseza izango da sinatzen denerako arriskua desagertu bada edo ezbeharra gertatu bada.

Polizako Baldintza Partikularretan adierazitako denbora-epean egongo da indarrean aseguruua.

Epealdika luzatzeko aukerarekin kontratatzen bada, isilbidez luzatuko da aldiko urtebeterako, alderdietako batek aurkakoa adierazi ezean beste alderdiari idatziz jakinaraziz, gutxienez, hasita dagoen epealdia amaitu baino hilabete lehenago aseguru-hartzaileak uko egiten dionean, eta bi hilabete lehenago, berriz, uko egiten diona aseguratzalea denean.

Kontratua hutsaltzeko erabakia aseguru-hartzailearena baldin bada, Aseguru Etxearen alde geratuko dira hasita dagoen epealdiko primak, eta erabakia Aseguru Etxearena bada, aldiz, hutsaltze-datatik hasi eta ordaindutako primak estalitako aseguruaren aldia amaitu arte geratzen den denborari dagokion prima-zatia itzuli beharko dio Aseguru Etxeak Aseguru Hartzaileari.

Alderdietakoren batek itundutako bermeak aldatu nahi izanez gero, estaldurak kenduz edo murriztuz, beste alderdiari jakinarazi beharko dio, gutxienez hasita dagoen epealdia bukatu baino bi hilabete lehenago. Jakinarazpena jaso duen alderdiak erantzuten ez badu epealdia bukatu baino hamabost egun lehenago, ulertuko da onartu egiten duela eta aseguruaren hurrengo epealditik aurrera izango ditu ondorioak; eta, ezetz erantzuten badu, poliza hutsaltzeko aukera egongo da esandako muga-egunetik aurrera.

Edozein arrazoi dela-eta aseguraturako arriskua desagertuz gero, poliza deseginda geratuko da inguruabar hori gertatzen den datan bertan, eta Aseguru Etxea aseguratuari primaren zati bat itzuli beharretik libre geratuko da.

Primaren ordainketa

Aseguru Hartzaileak polizaren Baldintza Orokorren eta Partikularren arabera ordaindu beharko du prima. Aldizkako primak itundutako badira, lehenengoa galdagarria izango da kontratua sinatzen den unetik aurrera.

Aseguru Hartzailearen erruz prima ez bada ordaindu, edo muga-egunean prima bakarra ez bada ordaindu, Aseguru Etxeak eskubidea izango du kontratua suntsitzeko edo zor zaion primaren ordainketa exekuzio-bidetik galdatzeko.

Espresuki kontrakorik hitzartu ezean, prima ez bada ordaindu ezbeharra gertatu aurretik, Aseguru Etxea bere betebeharretatik libre geratuko da.

Hurrengo primen ordainketa muga-egunean izango da galdagarria, Aseguru Hartzailearen egoitzan edo polizako Baldintza Partikularretan itundutakoan.

Ondorengo primetakoren bat ez bada ordaintzen, estaldura etenda geratuko da, muga-egunetik hilabete pasatu ondoren. Hilabete horretan ezbeharren bat gertatuko balitz, Aseguru Etxeak kalte-ordain gisa eman beharreko zenbatekotik zor den primaren zenbatekoa kendu ahal izango du. Aseguru Etxeak ordainketa ez badu erreklamatzeko primaren muga-egunaren ondorengo sei hilabeteetan zehar, kontratua azkendutzat emango da.

Kontratua ez balego suntsituta edo azkenduta aurreko artikuluen arabera, estaldurak berriz ere ondorioak izango ditu Aseguru Hartzaileak prima ordaintzen duen eguneko hogeita laugarren ordutik hasita.

Banku-helbideratzea

Aseguru Hartzaileak banketxe, aurrezki-kutxa edo finantza-entitateari helbideratze-agindua emanaz zuzendutako gutuna emango dio Aseguru Etxeari.

Prima bere muga-egunean ordaindu dela ulertuko da, salbu eta hilabeteko graziazko epean kobratzen saiatuta, ordaindu behar duenaren kontuan nahikoa diru ez badago. Kasu horretan, Aseguru Etxeak aseguratuari jakinaraziko dio ordainagiria Aseguru Etxearen egoitzan duela, eta aseguruak prima egoitza horretan ordaindu beharko du. Muga-egunetik hilabeteko epea pasatzen bada ordainketarik egin gabe, aseguruaren etenaldian geratuko da.

Aseguru Etxeak kobratzeko ordainagiria aurkeztu gabe graziazko epea pasatzen uzten badu edo aurkeztean kontuan nahiko diru ez badago, horren berri eman beharko dio prima ordaintzeko betebeharra duenari, gutun ziurtatu edo zalantzarik gabeko bide batez, hilabeteko epe berri bat emanaz, Aseguru Etxeari adierazteko ordainketa nola egingo duen. Epe hori kontatzen hasiko da aipatutako gutuna edo jakinarazpena Aseguru Etxeari komunikatutako azken egoitzan jasotzen denean. Data horretatik hilabeteko epea pasatzen bada ordainketarik egin gabe, aseguruaren etenaldian geratuko da.

Zuzendaritzak edo legez baimendutako ordezkariak igorritako ordainagirik bakarrik behartuko dute Aseguru Etxea.

Aseguru Etxearen loturadun agente ordezkari bati egindako prima-ordainketak, zuzenean Aseguru Etxeari egindako ordainketaren balio bera izango du.

Arriskuaren aldaketak

Kontratua indarrean dagoen bitartean, Aseguru Hartzaileak edo aseguruak Aseguru Etxeari eman beharko diote, ahal bezain laster, arriskua areagotzen duten inguruabar guztien berri, Aseguru Etxeak kontratua egiterakoan jakin izan balitu ez sinatzeko adinakoak edo bestelako baldintza zorrotzagoetan erabakitze adinakoak baldin badira.

Aseguru Etxeak onar dezake edo ez arriskua areagotzea, eta arau hauek aplikatuko zaizkio:

Onartzen badu, Aseguru Etxeak kontratuan behar den aldaketa egitea proposatuko dio Aseguru Hartzaileari, arriskua areagotu dela deklaratu zaionetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Aseguru Hartzaileak hamabost eguneko epea izango du proposamen hori onartzeko edo ukatzeko, proposamena hartzen duenetik kontaktzen hasita. Aseguru Hartzaileak ez badu onartzen edo ez badu ezer esaten, Aseguru Etxeak ahalmena izango du, epe hori bete ondoren, kontratua hutsaltzeko Aseguru Hartzaileari aurrez abisatuz eta beste hamabost eguneko epea emanaz erantzun dezan; egun horiek pasatu eta hurrengo zortzi egunen barruan jakinaraziko dio hartzaileari behin betiko kontratu-hutsaltzea.

Aseguru Etxeak ez badu onartzen arriskuaren aldaketa, kontratua hutsaldu ahal izango du, Aseguru Hartzaileari hilabeteko epean horren berri emanaz, arriskua areagotzearen berri izaten duen egunetik kontaktzen hasita.

Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak deklaraziorik egin ez badu, eta ezbeharren bat gertatzen bada, Aseguru Etxea bere prestazioa ematetik libre geratuko da, Aseguru Hartzaileak edo aseguratuak fede gaiztoz jokatu baldin badu. Bestelako kasuetan, Aseguru Etxearen prestazioa murriztu egingo da, hitzartutako primaren eta arriskuaren benetako garrantzia ezagutu izan balitz aplikatuko litzatekeenaren arteko aldearen proportzioan.

Arriskua areagotzea ez bada Aseguru Hartzaileari edo aseguratuari egozteko modukoa, eta Aseguru Etxeak arrisku-aldaketa ez badu onartu nahi, sortu gabeko prima-zatia itzuli egin beharko du.

Kontratua indarrean dagoen bitartean, Aseguru Hartzaileak edo aseguratuak Aseguru Etxeari eman ahal izango diote arriskua arintzen duten inguruabar guztien berri, Aseguru Etxeak kontratua egiterakoan ezagutu izan balitu bestelako baldintza mesedegarriagoetan sinarazteko adinakoak baldin badira.

Horrela bada, hasita dagoen epealdia amaitutakoan, Aseguru Etxeak dagokion proportzioan murriztu beharko du hurrengo primaren zenbatekoa. Bestela, Aseguru Hartzaileak kontratua desegiteko eskubidea izango du, eta arriskua txikitu dela jakinarazten duenetik ordaindu beharko zukeen primaren eta ordaindu duen primaren arteko aldea itzul diezaiotela eskatu ahal izango du.

Aseguruen konkurrentzia

Poliza honek estalitako edozein arrisku beste aseguru-entitate batek ere denbora-epe berdinean estaltzen dituenean, Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguru Etxeari eta gainerako aseguratzaleei eman beharko die beste aseguruen berri, kontrakorik hitzartu ezean.

Jakinarazpen hori doloz egingo ez balitz, eta, gainasegurua izanik, ezbeharra gertatuko balitz, Aseguru Etxeak ez du kalte-ordaina emateko betebeharririk izango.

Ezbeharra gertatutakoan, Aseguru Hartzaileak edo Aseguratuak Aseguru Etxeari jakinarazi beharko dio, gainerako aseguratzaileak nor diren adieraziz.

Jakinarazpenak

Aseguru Hartzaileak, aseguratua edo onuradunak egindako jakinarazpenak Aseguru Etxeari zuzenduta badaude soilik izango dira baliozkoak; dena dela, agente bati egindakoek ere zuzenean Aseguru Etxeari egindako jakinarazpenen balio bera izango dute. Aseguru Etxeak Aseguru Hartzaileari egindako jakinarazpenak baliozkoak izango dira Aseguru Etxeak ezagutzen duen hartzailearen azken egoitzara igortzen badira; Aseguru Hartzailearen jakinarazpenak, aldiz, Aseguru Etxearen egoitza sozialera edo polizaren kudeaketan parte hartu duen bulegora bidali behar dira.

Aseguru-etxeak aseguru-hartzaileari egiten dizkion jakinarazpen, errekerimendu eta komunikazio guztiak posta bidez edo bitarteko elektronikoan bidez bidaliko dira Baldintza Partikularren dokumentuan ezarritako helbidera edo zenbakira. Aseguru-hartzaileak edozein unetan egin ahal izango du polizaren posta-helbidea edo helbide elektronikoa aldatzeko eskaera.

Alderdien arteko komunikazioetarako, espresuki hitzartzen da zuzenbidean baliozkoa den edozein komunikabide erabili ahal izango dela komunikazioak bidali eta hartu izana jasota gera dadin.

Aseguru-agente lotetsiei eta aseguru-artekariei egindako jakinarazpenek ez dute batere baliorik izango, horiek Aseguru Etxeari helarazpenik egiten ez badiote behintzat.

Artekari batek Aseguru Hartzailearen izenean Aseguru Etxeari egindako komunikazioek Aseguru Hartzaileak berak egindakoen balio bera izango dute, horrek esanbidez kontrako adierazpenik egin ezean.

Preskripzioa, jurisdikzioa eta arbitrajea

Preskripzioa:

Kontratu honetatik eratortzen diren akzioek bi urteko epean preskribatuko dute Kalte Materialen eta Erantzukizun Zibileko estalduren kasuan, akzioak egikaritzeko aukera dagoen egunetik aurrer.

Jurisdikzioa:

Kontratu hau Espainiako jurisdikzioaren mende geratzen da, eta, jurisdikzio horren barruan, Aseguratuaren egoitzari dagokiona izango da kontratutik sortutako akzioez arduratzeko eskumena izango duen Epailea. Horretarako, Espainiako egoitza bat izendatu beharko du aseguratua, bere egoitza atzerrian badu.

Arbitrajea:

Alderdiak berariaz ados jarriz gero, kontratu honetatik sortutako iritzi-desberdintasunak arbitroen erabakipean jarri ahal izango dira, indarrean dagoen legeriarekin bat.

EZOHIKO GERTAKARIEN ONDORIOZKO GALERENGATIK ASEGURATUEN KONPENTSASIZIO PARTZUERGOAREN KALTE- ORDAINEN KLAUSULA PERTSONA-ASEGURUETAN

Urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testu bateginean ezarritakoarekin bat, enpresa-erakunde publiko horren aldeko errekarua nahitaez gaineratu behar duen aseguru-kontratu baten aseguru-hartzaileak edozein erakunde aseguratzailerekin hitzartu ahal izango du ezohiko arriskuen estaldura, baldin eta erakunde aseguratzaille horrek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen baldintzak betetzen baditu.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko ditu Espainian edo atzerrian ezohiko gertaerek sortutako ezbeharren ondoriozko kalte-ordainak, pertsonen aseguruaren kasuan, Aseguratuak bere ohiko egoitza Espainian badu eta Aseguru Hartzaileak Partzuergoaren aldeko errekaruak ordainduta baditu, ondorengo egoeretako bat gertatzen denean:

a) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estalitako ezohiko arriskua erakunde aseguratzailerekin kontratatutako aseguru-polizaren babesean ez egotea.

b) Aipatutako aseguru-poliza horrek babestua egonik ere, Erakunde Aseguratzailleak ezin izatea bere betebeharririk bete, judizialki konkurtsoan dagoela deklaratu izan delako, edo Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak esku hartutako edo bere gain hartutako likidazio-prozedura batean dagoelako.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bere jarduna egokituko du aipatutako Legezko Estatutuan, Aseguru Kontratuei buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legean, Ezohiko Arriskuen Aseguruaren Erregelamenduan -otsailaren 20ko 300/2004 Errege Dekretuak onetsitakoan- eta xedapen osagarrietan zehaztutakora moldatzeko.

I. LEGE-ARAUEN LABURPENA

1. Estaltzen diren ezohiko gertakariak

a) Naturako fenomeno hauek: lurrikarak eta itsasikarak, ezohiko uholdeak (itsas enbateg sortutakoak barne), sumendien erupzioak, ezohiko ekaitz ziklonikoa (barnean hartuz 120 km/h-tik gorako ezohiko haize-boladak eta tornadoak) eta gorputz sideralak eta aerolitoak erortzea.

b) Terrorismo, errebolta, sedizio, matxinada eta jende-iskanbilak direla-eta bortxaz eragindakoa.

c) Indar Armatuek edo Seguritasuneko Indar eta Kidegoek bake-garaian burututako gertaera edo ekintzak.

Fenomeno atmosferikoak eta sismikoak, sumendien erupzioenak eta gorputz sideralak erortzea Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren instantziaz ziurtatuko dira, Estatuko Meteorologia Agentziak (AEMET), Geografia Institutu Nazionalak eta gai horretan eskudunak diren gainerako erakunde publikoek egindako txostenen bidez. Izaera politikoa edo soziala duten gertaeren kasuan, edo Indar Armateuk edo Segurtasuneko Indar eta Gorputzek bakegariaian burututako gertaera edo ekintzen kasuan, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak gertakariei buruzko informazioa bildu ahal izango du jurisdikzio- eta administrazio-organo eskudunetatik.

2. Kanpona utzitako arriskuak

- a) Aseguru Kontratuaren Legearen arabera kalte-ordainik eragiten ez dutenak.
- b) Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren aldeko errekargua nahitaezkoa ez duen aseguru-kontratu baten bidez aseguraturuta dauden pertsonengan sortutakoak.
- c) Gatazka armatuek eragindakook, aurrez gerra-deklarazio ofizialik egon ez bada ere.
- d) Energia nuklearretik eratorriak, kalte nuklearrei edo material erradioaktiboengatik sortutakoei buruzko maiatzaren 27ko 12/2011 Legean ezarritakoari kalterik egin gabe.
- e) Aurreko 1. a) atalean adierazitakoez bestelako natura-fenomenoek sorturikoak, eta, bereziki, maila freatikoaren igoerak, malda-higidurek, lurren lerradura edo asentamenduak, haitz-erortzeak eta antzeko fenomenoek sorturikoak; salbuespena izango dira nabarmenki euri-uren eraginez gertaturikoak, baldin eta ur horiek inguruan ezohiko uholde-egoera sortu badute eta uholde horren garaian gertatu badira.
- f) Biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan xedatutakoari jarraituz egin diren bilera eta manifestazioetako jarduera jendetsuen ondoriozkoak, eta legezko grebetako jardueren ondoriozkoak, jarduera horiek aurreko 1.b) atalean adierazitakoaren arabera ezohiko gertakaritzat hartzen direnean izan ezik.
- g) Aseguratuak fede gaiztoz eragindakook.
- h) Lehen prima ordaindu aurretik gertatutako ezbeharren ondoriozkoak, edo, Aseguru Kontratuaren Legean ezarritakoarekin bat, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren estaldura etenda dagoenean edo asegurua azkenduta dagoenean primak ordaindu ez direlako gertatutakoen ondoriozkoak.
- i) Haien tamaina eta larritasunagatik Estatuko Gobernuak “katastrofe edo hondamen nazional” gisa kalifikatzen dituenak.

3. Estalduraren hedadura

1. Aseguru-polizetan ohiko arriskuen estaldurarako zehazten diren pertsona eta zenbateko aseguratatu berberak estaliko ditu ezohiko arriskuen estaldurak.
2. Bizitza-aseguruko polizak direnean, kontratuan aurreikusitakoaren arabera eta aseguru pribatuak arautzen dituen araudiarekin bat hornidura matematikoa sortzen badute, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren estaldurak Aseguratatu bakoitzari dagokion arrisku-kapitalari egingo dio erreferentzia, hau da, aseguratutako zenbatekoaren eta poliza jaulki duen Erakunde Aseguratzailleak (aipatutako araudiaren arabera) eratuta eduki behar duen hornidura matematikoaren arteko aldeari. Hornidura matematikoari dagokion zenbatekoa aipatutako Erakunde Aseguratzailleak ordainduko du.

II. KALTEEN BERRI EMATEA ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOARI


1. Estalduraz Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagozkion kalte-ordainen eskaera Partzuergo horri zuzendutako komunikazio bidez egingo da. Komunikazio hori aseguru-hartzaileak, aseguratutako edo polizaren onuradunak egingo du, edo aurrekoen kontura eta izenean jarduten duenak, edo erakunde aseguratzailleak edo aseguruia kudeatzeko esku hartu duen aseguru-bitartekariak.
2. Honela egin ahal izango da kalteen komunikazioa eta honela eskuratu ahal izango da prozedurari eta ezbeharren izapidetze-egoerari buruzko edozein informazio:

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Telefono bidezko Arreta Zentrora deituz (900 222 665 edo 952 367 042 zenbakira).

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren webgunearen bidez (www.consorsegueros.es).

3. Kalteen balorazioa: aseguruaren legeriaren eta aseguru-polizaren arabera kalteordaina dagokien kalteen balorazioa Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak egingo du, eta Partzuergoa ez da lotetsita egongo arrisku arruntak estaltzen dituen erakunde aseguratzailleak egindako balorazioekin, halakorik egonez gero.
4. Kalte-ordainaren ordainketa: Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bankutransferentzia bidez ordainduko dio kalte-ordaina aseguruaren onuradunari.

SEGUROS LAGUN ARO, S.A.



Zuzendaria

Telefono interesgarriak

barrialdietarako telefonoa 112

Ezbeharretarako 900 38 08 38

(eta atzerritik sakatu: 0034 944 05 14 12)

AUTOMOBILA
ETXEBIZITZA
AURREZKIA AURREIKUSPENA
BIZITZA
ISTRIPUAK
OSASUNA
NEGOZIOA
EGUNEKO BAJA
MUGIKORTASUNA